

1.gaia

Gerra Handia (1914-19): XIX. mendearen amaiera eta zibilizazio burgesaren krisi orokorra

XIX.mendean herritartasunaz gozatzeko eskubidea izango zutenak nortzuk ziren zehazten saiatu ziren, hau da, berdinezko komunitatean nortzuk sartuko ziren. Emakumeak eta jabetzarik ez zutenak eskubide horretatik kanpo geratu ziren, eta beraz, herriaren gehiengoa eskubide politikoan kanpo geratu ziren. Ondorioz, liberalismoa eta kapitalismoa nagusitu ziren, eta elitearen mesederako jokatzen zuen sistema ezarri zen. Honen ondorioz, proletarioaren eskutik langile-mugimenduak sortu ziren (sozialismoa, anarkismoa...) eta emakumeak feminismoaren eta sufragioaren borrokan aritu ziren.

XIX.mendeko ordena inperialista: 1870-1914

1870ez geroztik nazioak sortzeko irizpideak sortu ziren, eta potentzia kapitalistek inperialismora jo zuten. Horrela, Europa potentzia nagusia bilakatu zen, eta munduko bestelako herrialde asko konkistatu, zapaldu... zituzten. Ekonomiari dagokionez, hedapen kolonialarekin lehengaiak lortzea bilatzen zen, merkatu berrietara iristeko eta kapitalismoa elikatzeko. Bestalde, demografikoki Europak bizi zuen hazkundearen konponbidetzat hartu zen, koloniak biztanleriaren ihes balbulak bilakatu zirelako. Gainera, arrazoi ideologikoen arloan kolonialismoa misio zibilizatzaile edo ebanjelizatzaile bezala arrazoitu zen askotan ere, eta politikaren eremuan nazionalismoek ezinbesteko eragina izan zuten.

Ingalaterrak sortu zuen inperialismo handiena, India, Afrikako zati handi bat, Australia eta Kanada bereganatuz. Bigarren potentziarik indartsuena Frantzia izan zen, mundu osoan zehar jabetzak baitzituen. Alemaniak Afrikan zein Ozeanian lurraldeak bereganatu zituen, Italiak Eritrea eta Libia hartu zituen, Belgikak Kongo eskuratu zuen... Bestalde, Japoniak industrializazio azkarraren ondoriozko hazkundea bizi zuen, eta Txinako eta Koreako hainbat lurralde bereganatu zituen. Azkenik, AEBk barne eraketa egin zuen, baina ez zen potentzia mundiala bilakatu Lehen Mundu Gerra bukatu zenera arte.

XIX.mendeko ordena sozial eta kulturalaren amaiera

XX.mendean sartu ahala, burgesiaren eta kapitalismoaren nagusitasuna kolokan jartzen hasi ziren, langile-masak boterea hartu zuten bitartean. Hala ere, II.internazionalen langile-mugimenduaren behin betiko zatiketa hasi zen, marxismoaren eta anarkismoaren arteko tirabirak hasi baitziren. Gainera, Europak izandako nagusitasuna galtzen joan zen,

eta AEBak bilakatu ziren potentzia mundiala. Bestalde, genero-harremanak hankaz gora jarri ziren, emakumeen emantzipazioaren aldeko urrats handiak emanez.

Basileako Manifestua (1912)

II. Internazionalak 1912an Basilean ospatutako kongresuan argi adierazi zen ezin zela Lehen Mundu Gerra bezalako gerra bat justifikatu, kapitalisten interesak babesten zituen gerra bat zelako. Basileako manifestuak Stuttgart-eko ebazpena (1907) berretsi zuen: gerra hastekotan sozialistek krisi ekonomiko eta politikoa aprobetxatu behar zutela sistema kapitalistaren erorketa arintzeko. Horrela, Basileako manifestuarekin proletargoaren taktika ezarri zen, gerraren zailtasunak eta herriaren haserrea iraultza sozialista bideratzeko aprobetxatzea.

Gerraren berehalako kausak eta garapena

Gerra Sarajevon piztu zen 1914ko uztailean, Serbiar batek Austrohungariar inperioaren oinordekoa erailtzean. Ondorioz, bi bando sortu ziren. Alde batetik, aliatuak zeuden (Errusia, Ingalaterra, Frantzia eta Italia) eta bestetik, inperio zentralak edo ardatzeko potentziak (Alemania, Austria-Hungaria, Otomandar Inperioa eta Bulgaria).

Gerraren garapenari dagokionez, aurretik egondako gerra estrategia, ideiak... bertan behera utzi ziren, eta modu desberdinak erabili ziren, hala nola, lubakien erabilera. Gerra oso hilgarria izan zen, eta gerraren kontrako jarrera zabaldu zen gizartean. 1917tik aurrera Estatu Batuak gerran sartu ziren, eta mendebaldeko frontea izugarri indartu zen, hilero 200.000 soldadu bidaltzen zirelako bertatik.

Lehen mundu gerraren ondorioak

Alemania gerraren errudun nagusia bezala azaldu zen, eta hortaz kalteordainak ordaintzera zigortu zen. Horrela, Alemaniako gizartearen gehiengoak errua ezkerrari bota zion, gerora nazismoaren gorakada ahalbideratzeko ezinbestekoa izan zena. Bestalde, Europako mapa berria osatu zen, Austrohungariar inperioa, inperio otomandarra eta errusiar inperioa desagertu eta Austria, Hungaria, Txekoslovakia, Yugooslavia, Rumania, Bulgaria eta Polonia sortu zirelako.

Gainera, munduko potentzien oreka asko aldatu zen, Alemaniak galdutako koloniak Frantziak eta Ingalaterrak bereganatu zituztelako. Hala ere, gerraren ondorioz Europak beheraldia jasan zuen eta Estatu Batuen hazkundea eta zabalkuntza hasi zen. Ondorio teknologikoei dagokionez, gerran erabilitako tresnak, teknikak, garraio-bideak... bizitza zibilera pasa ziren, eta garapen teknologiko nabarmena eman zen.

Gizarte transformazioak ere eman ziren. Europako krisialdiekin gizarte desorekak nabarmendu ziren, eta ondorioz, ertain klaseen hondamena eman zen. Aldi berean, feminismoaren arloan aurerrapen handiak lortu ziren: emakumeen boto-eskubidea aitortu zen herrialde askotan, goi-mailako lanbideetan sartu ziren, emakumezkoentzako unibertstateak zabaldu ziren... Horrela, orden familiar eta sozialaren haustura ematen da, eta maskulinitatea eta feminitatea bezala ulertzen zena aldatu zen.

Emakume modernoa

Feminismoaren hastapenekin genero eredu berria sortu zen, *emakume modernoa* eta emakumezkoen gorputzak askatasunaren irudi bilakatu ziren. Emakumearen emantzipazioarekin genero-harremanak hankaz gora jarri ziren, eta genero-identitatearen krisia eman zen: emakumeen boterea handituz zihola, gizonezkoen histeria hazi zen. Aldi berean, aurrerapen guzti hauek kontserbadurismoarekin topo egin zuten. Kontserbadoreek gizona aberriaren babesle bezala irudikatu zuten, eta amatasuna goraipatu zuten, emakumea zaintza-lanekin lotzen da berriro. Horrela, gerraren aurretiko egoerara itzultzen saiatu ziren, diferentzia sexualak berriz ere baieztatuz.

2.gaia

Errusiar Iraultza eta Langile Estatuaren sorrera (1917-1928)

Prozesu iraultzaile guztietan botere bikoitzaren egoera dago. Errusiar iraultzan botere bikoitzaren egoera nahiko luzatu zen, 1917ko martxotik urrira, alegia. Bertan, bi indar politiko desberdinen borroka eman zen: *sobietak* (herri aliantza) eta botere hegemonikoa edo *duma* (behin behineko gobernu probisionala).

Sobietak herri maila desberdinetan ematen ziren asanbleak ziren, eta norabide politikoa aldatzeko tresna bezala erabili ziren, gizarte antolamendua helburu nagusi izanda. Lehen saiakera iraultzailea 1905ean eman zen, eta porrota izan arren, sobietak mantendu ziren. Izan ere, indartu ziren, nekazarien, langileen eta soldaduen aliantza gauzatu.

1917ko otsailean Tsarren erregimena suntsitu zen, eta ordean, behin behineko gobernu liberal parlamenariora finkatu zen gerrarekin jarraitzeko asmoz. 1917ko martxoaren 8an, berriz, emakumeak kalera atera ziren ogia eta bakea eskatzeko, gerraren nekeaz eta goseaz jota. Momentu hau, Errusiar Iraultzaren pizgarritzat edo hasieratzat hartu zen.

1917ko apirilean Lenin Errusiara heldu zen, eta *apirilaren tesiak* azaldu zituen. Bere plantemenduan, gerra geldiaraztea eta lurrak banatzea proposatu zuen, eta batez ere, behin-behineko gobernu liberalean parterik ez hartzea defendatu zuen. Izan ere, boltxebikeak izugarri hazi ziren, apirilean %13a suposatuz, urrian %60a ordezkatzera heldu arte. Urriaren 9an boltxebikeen batzorde zentrala altxamen armatuaren alde jarri ziren, eta urriaren 24ean Negu jauregia hartu zuten.

Gerra zibila eta aginte sobietarraren eraikuntza: 1918-1921

Boltxebikeen nagusitasunaren aurrean, mendebaldeko indarrek gerra deklaratu zioten Errusiarri. Gerrak Zibilak era bat baldintzatu Errusiar Iraultzaren norabidea, boltxebikeak eta erregimen tsaristaren aldekoak aurrez aurre jarri zituelako. Boltxebikeak edo Ejerzito gorria, bere gaitasun estrategiko eta antolatzaile handiagatik garaile atera ziren.

Zentralismo demokratikoa, Leninen eredia

Leninek zentralismo demokratikoa proposatu zuen. Eredua honen arabera, alderdiaren barruan eztabaidarako askatasun eta eskumen osoa aitortzen zen, eta behetik gorako zein goitik beherako proposamenak onartzen ziren, eztabaida demokratikoa sustatzeko. Hala ere, alderdiaren gehiengoak erabaki bat hartzen zuenean, kide guztiek erabakia errespetatzeko eta gauzatzeko betebeharra zuten: *askatasun osoa eztabaidarako, batasun osoa ekintzarako*.

1923ko Konstituzioa eta NEP, Iraultzaren sortzeko aldia

Lehenengo Gobernu Boltxebikearen neurriek izugarriko aldaketak eragin zituzten gizarte mailan, eta esan genezakeen eremu sozialean aurrerapauso handiak eman zirela: alfabetismoa sustatu zen, dibortzioa onartu zen, aborto-eskubidea aldarrikatu zen, autodeterminazio eskubidea eman zen... Ekonomiaren aldetik, *New Economic Politic* (NEP) sistema mistoa proposatu zen, baliabide kapitalistaren eta sozialistaren elkarlana proposatzen zuenak.

Kontrairaultza estalinista

Leninen eredia berriz, bertan behera utzi zen 1924ean hil zenean, eta garai hartan Iraultzaren termidorra hasi zen, 30eko hamarkadara arte luzatu zena. Garai honetan, errepresio eta jazarpen politikoen kanpainak burutu ziren, eta Partidu Komunista Sobietarraren kideak, sozialistak, anarkistak eta oposizioaren lagunak jazarriak izan ziren. Aldi berean, epaiketa publikoak antolatu ziren eta milaka pertsona eraili zituzten. Izan ere, urterik odoltsuena 1937a izan zen, non Stalinen agintea behin betiko sendotu zen.

Demokrazien krisia eta faxismoen gorakada

Demokrazia liberalaren krisia

Sufragio unibertsalaren aitormenarekin, populazioaren kuota handiak bizitza publikoan sartu ziren, eta honek masa partiduen eta sozialdemokraziaren garapena ekarri zuen. Egoera honetan, partidu tradizionalak zailtasunak izan zituzten egoera berriari egokitzeko, eta demokrazia liberalaren krisia eman zen.

Faxismoaren ezaugarri orokorrak

Demokrazia liberalaren krisiaren aurrean eta komunismoaren *mamua*ren aurrean erregimen faxistak hirugarren bide alternatibo moduan aurkeztu ziren. Alderdi hauek garai modernoetara egokitu ziren, aurrerapenari eta etorkizunari begiratuz, eta zentzu honetan, ez ziren tradizionalistak izan. Horrela, mugimendu faxistak Europa osoan zehar antolatu ziren: Italia, Alemania, Espainia, Portugal...

Faxismoaren proiektu politikoa estatu korporatibo eta totalitarioa bat zen. Izan ere, korporatibismo honek nazio edo estaturen ideia gizabanakoaren gainetik jartzen du. Bestalde, desadostasun politikoak ezabatu zituzten eta alderdi bakarraren existentzia defendatu zuten, partikularismo guztiak ezabatuz eta zentralismoaren alde eginez. Gainera, faxismoak gizarte-kide interklasistak bildu zituen, egoera txarrean zeuden klaseak batuz (nekazari txikiak, hiri-langabeak, burges txikiak...). Guzti hauek komunismoaren eta desorden publikoaren beldur ziren, eta faxismoa alternatiba bezala aurkeztu zitzaien.

Gainera, alderdi faxistek masa-obedientzia lortzeko lan handia egin zuten. Horretarako, masa-hedabide berriak haien intereserako erabiltzen zituzten, alderdiaren propaganda eginez. Bestalde, buruzagien izaera karismatikoak jarraitzaile asko lortu zituen, eta honek partiduarekiko atxikimendua lortu zuen. Bestalde, sinbologia propioa osatu eta erabili zuten: banderak, ikurrak...

Ekonomiari dagokionez, burgesiak aukera berri bat ikusi zuen faxismoarekin, balore tradizionalak defendatuz etorkizunerako proiektua zuelako. Horrela, ugazaben klaseak faxismoa sustatu eta finantziatu zuen, bere interesak babestuko zituztelakoan. Hala ere, ideia honen kontra, faxismoak liberalismo ekonomikoari mugak jarri zizkion: autarkia eta ekonomiaren norabide zentralizatu defendatu zen, protekzionismo handiaren eta interbentzionismoaren alde egin zen, kartel eta monopolioak sortu ziren, Estatuak babestutako enpresak sortu ziren...

Genero-ordena tradizionala: familia eta natalismoa. Emakumeen nazionalizazioa.

Feminismoaren lehen aurrepausoen aurrean, faxismoak familia-balore tradizionalak sustatu zituen, eta sexu bakoitzari bere lekua eman zion: emakumeari amatasuna zegokien, eta gizonari, berriz, gizontasun oldarkorra. Ondorioz, jaiotze tasa altuak exijitu ziren. Gainera, emakumezkoen sufragioa ezabatu zuten, eta emakume-lanaren kontrako jarrera gogorra defendatu zuten. Emakumeak eta familiak aberriaren aldeko zaletasunaren bultzatzaileak

bezala irudikatu ziren. Izan ere, ama izatea emakumezkoen funtziorik baliotsuena bezala aurkeztu zen, eta amek gizartearen zein Estatuaren onespene osoa zuten. Ondorioz, emakumeak izugarritzko garrantzia hartu zuten, baina soilik bere gaitasun erreproduzitzaileengatik.

Nazismoaren berezitasunak

Nazismoa 1920ko hamarkadan sortu eta 30ko hamarkadan indartu zen ideologia totalitarioa izan zen. Nazismoak hiritartasuna definitzeko biologia-faktorea hartu zuen, hain zuzen ere, arraza arioa. Arraza ario honi jarraitzen ez zioten pertsona guztiak hiritartasunetik kanpo, eta ondorioz, eskubideak izatetik kanpo geratu ziren (judutarrak, ijitoak, langileak, emakume feministak, eslabiarrak...). Talde txiki bakar bat pribilegiaduna bilakatzeko, arazo asko konpondu ziren, benetako alemaniarrek ez zirenen egoerak axola ematen zuelako. Gainera, eugenesiari garrantzi handia eman zitzaion, arrazaren hobekuntzarako tresna bezala erabili zelako, emakume langileak, judutarrak... esterilizatuz.

NSDAP-ren (Alemaniako Langile Alderdi Nazionalsozialista) programa faxista zen, eta bertako 25 puntuak ez zituzten aldatu. Bertan, Estatuaren eta nazioaren garrantzia azpimarratu zen, gizabanakoen gainetik jarriz. Bestalde, *Führer* lider karismatikoaren garrantzia azpimarratu zen, inperialismo erradikalaren defentsa egin zen, eta *Lanaren fronte nazionala* sortu zuten, hau da, sindikatu bakarra langile guztiontzat.

Bestalde, jarduera naziaren berezitasun nagusienetarikoa antisemitismoa izan zen. Izan ere, nazien ikuspuntutik juduak komunistak, finantzariak, politikari ustelak, bake-hitzarmen iraingarrien konplizeak... ziren. Ondorioz, juduek izugarritzko jazarpena jasan zuten, eta Hitlerren aginduaren lehenengo urtean soilik 40.000 juduk Alemaniatik alde egin zuten. 1935an Nurembergo Legearekin, juduei hiritartasuna eskubidea kendu zitzaion, eta masa emigrazioak eman ziren. 1935 urteaz geroztik juduen ondasunen desjabetzea burutu zen, *ondasunen arianizazioa* bezala ezagutzen dena. Horrela, 1938tik aurrera juduen enpresen espoliazioa eman zen, krisialdi ekonomikotik irtetzeko laguntza zelaren aitzakiarekin.

Propagandaren garrantzia

Nazien ideiak zabaltzeko eta batasun irudi bat emateko, propaganda ezinbestekoa izan zen. Izan ere, ekitaldi publikoak, masa manifestazioak eta desfile militarrik ospatu ziren, ongizate politikak bultzatu zituzten (oporrak, erretiroak...), horma-irudiak egin ziren, egunkariak eta liburuak zentsuratu ziren, propagandarako zinea bultzatu zen, *Gaztedi hitlerriarrak* sortu zuten, *Nesken liga* sortu zen emakumeak amatasunaren ildotik eramateko...

Kanpo politika inperialista

Lebensraum (alemanez, bizi-eremua) ideologia naziren ideia politiko nagusienetakoa zen. Alemania naziren politika espantsionista justifikatzeko balio zuen, Alemaniako populazioaren hazkundera lurralde gehiago (Alemania Handia) eskatzen zuela defendatzen zutelako. Horrela, berrarmatzeari ekin zioten, hasieran ezkutuan, eta 1935ean agerian. Izan ere, horretarako Mendebaldeko potentzien onespina zuten, faxismoak ez ezik, haien usteetan etsairik nagusia komunismoa zelako. Gainera, berrarmatzeak enplegu osoa ekarri zuen, eta 29ko krisia atzean utzi zuten. Honek, ospe handia eman zion Gobernu alemaniarrari. Horrela, 1936an Renania okupatu zuten eta Espainiako gerra zibilean parte hartu zuten, 1938an Austriako anexioa eta 1938an Sudeteen anexioa burutu zuten, 1939an Polonia okupatu zuten... Izan ere, azkenengo honengatik, Frantziak eta Ingalaterrak gerra deklaratu zuten 1939ko irailaren 1ean.

3.gaia

Gerra Hotza

II Mundu Gerraren amaiera: Yalta Bake Konferentzia 1945eko otsailean

Garaipena lortu baino lehen, aliatuek hainbat bake konferentzi antolatu zituzten. Izan ere, Yaltako Bake Konferentzia 1945eko otsailean eman zen, non Roosevelt, Churchill eta Stalinek gerra osteko garairako akordioak burutu zituzten. Konferentzia hau Gerra Hotzaren hasieratzat hartu izan da. Hartutako erabakien artean, Nazio Batuen Erakundea sortzea, Polonian hauteskunde demokratikoak deitzea, Hiritar sobietarrak aberriratzea, Poloniako mendebaldeko mugak Alemaniaruntz mugitzea, Alemaniaren desarmaea, desmilitarizazioa eta zatiketa burutzea eta Sobietar Batasunak Japonia erasotzea izan ziren.

Postdam Bake Konferentzia 1945ko uztaila/abuztua

Postdam Bake Konferentzia 1945eko uztaila eta abuztuan eman zen, eta Sobietar Batasunak, Estatu Batuek eta Britania Handiak hartu zuten parte. Konferentziaren helburu nagusia nazioarteko gerra osteko ordena berria antolatzea zen. Japoniari ultimatumak luzatu zitzaion baldintzarik gabeko erendizioa eskatuz. Bertan hartutako erabakien artean, Alemania eta Austriaren banaketa lau zatitan burutzea, gerra kriminal naziak segika ibiltzea... Gainera, berreraiketarako akordiora heldu ziren, eta Alemaniari kalte-ordainak ordaintzera behartu zitzaion, geroko Gerra Hotzak eragotziko bazuen ere. Aldi berean, Stalinek Francoren Erregimena isolatu nahi zuen, eta EEBBek, Errusiak eta Ingalaterrak Nazio Batuen Elkartean ez sartzea hitzartu zuten.

Nazio Batuen Erakundea (1945)

San Frantziskoko Konferentzian, 51 Estatu NBEaren Gutuna sinatu zuten. Erakunde honen helburuak nazioarteko bakea eta segurtasuna mantentzea, herrialdeen arteko adiskidetasun-harremanak eta lankidetzak ekonomiko, sozial eta kulturala sustatzea eta Estatuaren arteko gatazkak era baketsuan konpontzea ziren. Horrela, Batzar Nagusia eta Segurtasun Kontseilua osatu ziren. Batzar Nagusia urtean behin ematen den estatukideen ordezkarien biltzarra da, eztabaida-gunerik gorena. Segurtasun Kontseiluak, berriz, bost partaide iraunkor (AEB, Erresuma Batua, Frantzia, Txina, eta SESB - Rusia) eta bi urtero hautatzen diren beste 10 partaide gehiago ditu. Nolabait, erakunde betearazlea da eta berari dagokio bakea zaintzea.

1948an, Batzar Nagusiak Giza Eskubideen Aldarrikapen Unibertsala egin zuen, giza eskubideak zuzenbidezko erregimen batekin babesteko. Ondorioz, herri eta nazioen jomuga legez zehaztu zen, bai norbanakoei zein bai erakundeei dagokionez. Eskubide garrantzitsuenen artean bizitzaren, berdintasunaren eta duintasunaren eskubidea dira.

Gerra Hotza, nazioarteko *status quo* (1945-1989)

Estatu Batuen eta Sobietar Batasunen ekimenek sorrarazi zuten Gerra Hotza. Izan ere, ez zen zuzeneko gerra bat izan, bi superpotentzien arteko tentsio iraunkorreko egoera bat baizik. Horrela, segurtasuna lortzeko, *status-quo* hitzartu zen, nolabaiteko oreka. Behin eragin-gune bat hartuta, menperatuta eta mugatuta egon, beste superpotentzien onarpena oinarrizko araua izan zen, haien esku baitzegoen ere hitzartutako status-quoaren babes. Ondorioz, iskanbilak sistemaren periferian gauzatu ziren, hain zuzen ere, hirugarren herrietan, non potentziek eskuhartzen zuten beraien interesen alde. Horrela, sistema bipolar bat antolatu zen: Lerrokatu Gabeko Estatuak eta Nazio Batuen Erakundea.

Altzairuzko oihala (1946)

1946an Churchill Estatu Batuetara joan eta hitzaldi bat eman zuen. Bertan, Mendebaldeko Europa eta Ekialdeko Europaren artean *altzairuzko oihala* bat erori zela esan zuen, muga ideologiko bati erreferentzia eginez. Horrela, Mendebaldeko Europa AEBren alde jarri zen, eta Ekialdea, berriz, Sobietar Batasunaren alde. Yugoslaviak, ez zuen bandorik hautatu, partisoak boterean egon arren, ez zuelako Stalinen menpe geratu nahi. Horrela, Estatu Batuetan *contention* hitza zabaldu zen Trumanen doktrina antikomunista izendatzeko. Stalinek, hitzaldi hau gerrari deia zela salatu zuen.

Truman doktrina eta Jdanov doktrina (<1947)

Tentsiodun egoera honen aurrean, potentzia bakoitzak bere doktrina atera zuen:

Truman doktrina Trumanek proposatutako neurri politiko antikomunistak dira, ezker aldeko mugimenduen kontrako jazarpen-fanatikoak izan zirenak. Asmoa, komunismoaren kontrako mugimenduak laguntzea eta sostengatzea zen. Trumanek Grezia eta Turkia bereziki lagundu nahi zituen, komunismoaren hedapenaren beldur zirenez, *domino efektua* ekiditeko. Horrela, 400 miloi dolarreko laguntza militarra onartu zen Turkiarentzako eta Greziarentzako. Honen ildotik, AEBk Marshall Plana atera zuen 1947an, gerra osteko Europa berreraikitze lankidetzaprograma. Ondorioz, 13.000 milioi dolar eman ziren lau urteteko epean, mehatxu komunistaren aurrean bloke kapitalista finkatzeko. Azken finean,

AEB-ek gerraosteko egoera ekonomiko kaskarra gainditzeko finantza-baliabideak eskaini zituen fideltasun politikoaren ordean.

Aldi berean, Sobietar Batasunak Jdanov Doktrina atera zuen, antiiperialismoaren esparruan lehen doktrina izan zena. Doktrina honekin argi ukti nahi zen ez zutela amore emango, eta Sobietar Batasunaren menpe zeuden lurralde europarrak hala geratuko zirela aldarrikatu zuten. Prozesu honetan blokearen kohesio ekonomikoa sendotzeko, 1949an CAME (Elkarren Laguntza Ekonomikorako Kontseilua) sortu zen.

Gerra Hotzaren lehenengo gatatzak (40ko hamarkada)

Sobietar Batasunak Turkiaren mugak aldatu nahi zituen itsasarteak kontrolatzeko, baina Turkiak eskakizunak errefusatu zituen, AEBen babesa lortuz. Aldi berean, Greziako gerra zibila (1941-1950) eman zen, II.Mundu Gerraren osteko lehen altxamendu komunista eta Gerra Hotzaren lehenengo gatatzak armatua. AEBak garaile atera ziren, eta SSBBak partisansoak bertan behera utzi zituen. Bestalde, 1948an Pragako estatu kolpearekin Sobietar Batasunak Txekoslovakia menderatu zuen.

Berlineko krisia (1947-1949)

1948an EEBBk, Britania Handiak eta Frantziak Londreseko hitzarmena sinatu zuten, Alemaniako prozesu Konstituziogilea haien eremuetan zabaltzeko asmoz. Sobietarrak horren aurka atera ziren, bere eremuan erreforma berezia aplikatuz. Berlin hiria eremu sobietarren barruan zegoenez, Berlineko blokeoari ekin zioten sobietarrek. Egoera honen aurrean, Mendebaldeko blokearen erreakzioa ikaragarritzko aire-zubia antolatzea izan zen. Horrela, hamaika hilabetetan zehar hegaldien bidez populazioa hornitzea lortu zuten. Egoera honen aurrean, 1949an Stalinek blokea altxatu zuen.

Krisi honen ondorio nagusia Alemaniako zatiketa izan zen: mendebaldeko hiru zatiak Mendebaldeko Alemania bihurtu ziren, eta SSBBak Alemaniako Errepublika demokratikoa sortu zuen.

Berdinketa atomikoa (1949)

Bonbardaketa atomikoak Hiroshiman eta Nagasakin hasi zen 1945ean, izugarritzko ondorio larriak utziz. Honek, Estatu Batuei botere handia eman zien, baina egoera asko aldatu zen 1949ean, Sobietar Batasunak ere bonba atomikoa lortu zuenean. Izan ere, berdinketa

atomiko honek Gerra Hotza egonkortu zuen, bando garailerik ez zegoelako eta bi bandoek izugarritzko arma zutelako eskuragarri.

Ongizate estatuaren sorrera

Keynesen ondarea

Ongizate estatuaren sorrera ulertzeko, ezinbestekoa da 29ko krisialdia kontuan hartzea. Izan ere, 20ko hamarkadan superproduktzioa eman zen, baina ez zegoen eros-ahalmenik kantitate handi horiek erosteko. Garai hartan ez zen ondo ulertu zerk eragin zuen krisi hain sakona, eta Keynesek azaldu zuen lehendabiziz fenomeno hau:

Superproduktzioa ez emateko, ekonomian ezinbestekoa da eskaintza eta eskariaren arteko oreka lortzea. Horretarako, Estatuak esku-hartu behar du ekonomian, merkatuaren funtzionamendua zuzentzeko. Gainera, gastu publikoa oso garrantzitsua da kontsumoa bultzatzeko eta krisialdiari irtenbidea ateratzeko.

Hazkunde ekonomikoaren urrezko aroa: 1950-1973

XX.mendeko bigarren erdialdean hazkunde ekonomiko egonkorra eta orokorra eman zen mundu mailan, Estatuaren esku hartzeagatik, lehengai eta erregai merkeak egoteagatik eta produktibitatearen hazkundera eta soldata errealearen igoeragatik.

Urte hauetan, Estatuak merkatuan esku-hartu zuen, merkatuaren funtzionamendua zuzentzeko eta kapitalismoari mugak jartzeko. Alde batetik, inbertsio publikoa bultzatu zen, kapital pribatuaren kostuak gutxituz. Bestetik, eskaria handitzeko interbentzioa egin zen, eta azkenik, Estatuak lan harremanak arautu zituen, oinarrizko prezioak eta soldatak ezarriz. Bestalde, ekoizpen-kostuak gutxitzeko, Hirugarren Munduko herrialdeetako lehengai eta erregai merkeak erosi ziren, petrolioa energi iturri nagusia bilakaturik. Ondorioz, potentzia mundialek herrialde hauen kontrola lortu zuten neokolonialismoaren bidez.

Kontsumo gizartearen orokortzea

Hobekuntza teknologikoei eta kate ekoizpenari esker, lanaren produktibitateak gora egin zuen, eta ondorioz soldata errealek ere igo ziren, langileak pozik egotea lortuz. Lan disziplina onartu zen, eta klase desberdintasunak itxuragabetu ziren, langile klase ertain

handia sortuz. Kontsumitzaileen errentaren igoera honekin langileak kontsumitzaile bihurtu ziren, kontsumo gizartea sortuz. Ondorioz, kontsumo maileguak sortu ziren, eta langileek ondasun berriak erosi zituzten: etxebizitzak, kotxeak, elektratresnak...

Prozesu honetan, kapitalismoaren hiru tabu apurtzea ezinbestekoa izan zen, eta Estatuaren interbentzioa, soldata altuagoak eta prezio baxuagoak onartu behar izan ziren. Aldaketa hau eredu keynesiano fordistak bermatu zuen.

Sistema kapitalistaren aurrebaldintzak

Sistema kapitalistaren printzipio nagusiak eskulanaren erreserba eta soldata baxuak ziren. Horretarako, erreserbako ejertzitza sortzea baliogarria zen, eskaera eta eskaintzaren arabera lan merkatua arautzeko. Izan ere, kapitalismoaren helburu nagusia ahalik eta etekin handiena lortzea zen, eta horretarako soldata ahalik eta baxuenak eta eskulan guztia (gizonezkoa, emakumezkoa eta haurrena) erabili ziren.

Horrela, langile familia krisi larrian sartu zen, etekinen printzipioarekin, emakumeen eta haurren lana nagusitu zelako. Honek familia tradizionalaren egitura eta gizonezkoen nagusitasuna kolokan jarri zituen. Egoera honetan gizonen protestak hasi ziren, familia izateko eskubidea aldarrikatuz eta emakume eta haurren lana salatuz.

Protesta mugimendu honen ondorioz, familiaren iraupenari lehentasuna eman zitzaion, eta etxetik kanpoko emakumeen eta haurren lana legez kanpo utzi zen. Izan ere, emakumeen alokairuko lanak (lantegi zein mehategietan) familiaren desoreka sortzen zuelaren ideia zabaltzen hasi zen. Horrela, **domestizidatearen filosofia** zabaldu zen: feminitatea eta lantegietako lana bateraezinak dira. Gainera, ideologia hau langile mugimenduaren barruan ere zabaltzen hasi zen, sindikatuen eskaera nagusienetako bat familia soldata izanik. *Familia soldata* gizonezko langile errespetagarritasunaren oinarri bihurtu zen. Horrela, emakumezkoen lan egiteko eskubidea bigarren planora pasatu zen.

Familia soldata orokortzea (50-60. hamarkadetan)

Lana gizarteratzea baimentzen zuen jarduera ekonomikoa bilakatu zen, eta lan merkatutik kanpo geratzeak ongizate estatuaren abantailak galtzea suposatzen zuen. Horrela, emakumeek ezin izan zuten eskubide sozialetaz gozatu era zuzen batean. Honekin batera, merkatuak arautzen ez zituen jarduera ekonomikoaren ikusezintasuna areagotu zen, eta bigarren lan-merkatu ezegonkor bat sortu zen, gehien bat, emakumezkoena. Ondorioz,

etxeko-andre eredua orokortu zen (*enbrujada sindromea*) eta enplegu osoaren egoera gizonezkoei zegokion egoera bilakatu zen. Horrela, familia soldata norma bihurtu zen, hau da, familiaburuak (gizonezkoak) irabazten zuen dirua familia osoa mantentzeko beharrezkoa zen.

Ongizate-estatua

1942an argitaratutako Beverdige txostenak dioenez, hiritar orok eskubide politikoak izateaz gain, eskubide sozialak ere badiu. Beraz, Estatuaren ardura da hiritar guztiei babes ematea arrisku edo ezbeharrean aurrean, gaixotasun edo langabezi egoeretan, zahartzaroan... Horretarako gizarte-segurantzako sistema global bat eratu zen, zergen bidez hornitzen dena. Ondorioz, Estatuak zerga zuzenak eta zeharkakoak martxan jarri zituen. Gainera, Estatuak politika sozialak ere garatzen hasi zen: etxebizitzarako laguntzak, familiarako laguntzak, enplegu betea lortzeko politikak...

Beverdige bezalako ekonomilarien ekarpenekin, 1950.urtetik aurrera izugarritzko aldaketa eman zen, zenbait gai lorpen inbidualak izatetik herritar guztien eskubideak izatera igaro zirelako: etxebizitza, osasun publikoa, hezkuntza, lana... Zentzu honetan, gizarte kapitalistak erabat aldatu ziren: bizi-baldintzak hobetu ziren, langilegoa sistema kapitalistan integratu zen, lan-harremanetan bake soziala lortu zen, egonkortasun soziala lortu zen...

Beraz, esan daiteke Ongizate Estatuak botere politikoa aginte ekonomikoaren gaintik jartzen duela, merkatur mugatzeko, moldatzeko edo osatzeko. Estatuak bere gain hartzen du hiritarren babespen soziala, hiritar guztien duintasuna bermatzeko. Horretarako, Estatuaren interbentzionismoa ezinbestekoa da langabezia gutxitzeko. Bestalde, Estatuak izaera unibertsaleko zenbait gizarte zerbitzu eskeini behar ditu (hezkuntza, osasun zerbitzua, pentsioak....) eta eskubide sozialak errespetatu behar ditu.

Ongizate-estatuari buruzko teoriak

Ikuspegi **Liberal demokratak**, Ongizate Estatu merkatu libreko ekonomiaren modernizazioaren ondorioa dela defendatuko du (Schumpeter).

Ikuspegi **sozialdemokratak**, Ongizate Estatu berdintasun soziala lortzeko klaseen arteko hitzarmena dela esango du, langile mugimenduaren lanaren ondoriozkoa (Bobbio).

Teoria **marxistak** Ongizate Estatua kapitalismoa legitimatzeko balio duela defendatzen du (Miliband/Offer).

Ongizate Estatuaren bilakaera

Hasiera batean, Ongizate-Estatua kapitalismoaren urrezko aroan (1950-1973) garatu zen, non paregabeko hazkunde ekonomikoa bizi zen. 70eko hamarakadako krisialdia lehertu zenean, aldiz, hazkunde ekonomikoa eten egin zen, eta defizit publikoa izugarri hazi zen. Egoera honetan, Ongizate Estatuaren inguruko adostasuna apurtu zen. Neoliberalismoaren usteetan, Ongizate Estatua ekonomiaren hazkunderako oztopo bat zen eta krisialdia gainditzeko, Estatuaren gastua murriztea ezinbestekoa zen (Reagan, Thatcher...).

4.gaia

Herrialde ez lerrokatuen Mugimenduaren sorrera

Deskolonizazioak ondorioak izan zituen nazioarteko harremanetan. Izan ere, Estatu berri multzo handi bat sortu zen nazioarteko eszenatokian, nazioarteko harremanetan parte hartu nahirik. Egoera honen aurrean, Hirugarren Munduko herrialdeen elkartasuna proposatu zen, inperialismoa salatzeke eta azpigarapen ekonomikoa gainditzeko. Elkartasun honen ondorio izan zen, hain zuzen ere, Herrialde Ez Lerrokatuen Mugimendua. Bertatik, kolonialismo eta neokolonialismoaren kontrako jarrera tinkoa defendatu zen, eta horretarako NBEaren eskubideen aldarrikapen unibertsala erabili zuten.

Bandungo Konferentzia: 1955

Bandungen, Indonesian, herri afroasiarren lehenengo konferentzia interkontinentala eman zen 1955an. Bertan 23 herri asiarrak eta 6 afrikar bildu ziren. Lau protagonista nagusiak Nehru (Indiakoa), Sukarno (Indonesiakoa), Nasser (Egiptokoa) eta Zhon Enlai (Txinakoa) izan ziren. Batzar honen helburuak elkarkidetzak ekonomikoak eta kulturalak, autodeterminazioaren konkista eta NBEaren onspena lortzea ziren. Gainera, kanpo politika egiteko eskubidea aldarrikatu zuten ere. Bi superpotentziak, SSBB eta EEBB, mugimendu independentistekin identifikatu ziren, eta honek potentzia kolonial ohien dekadentzia ekarri zuen, frantziarraren eta britaniarraren dekadentzia, alegia.

Deskolonizazioaren aldeko prozesua 60 eta 70 hamarkadetan

Bi hamarkada hauetan Asian deskolonizazioak pausu handiak eman zituen. Izan ere, 1945-1955 artean Britania Handiak India, Pakistan eta Birmania galdu zituen, Frantziak Indotxina, eta Holandak Indonesia. Afrikan Túnez (1956), Marruecos (1956) eta Argelia (1962) deskolonizatu ziren, eta 1955-1975 bitartean Afrika beltza deskolonizatu zen.

Ez Lerrotutako Herrien Mugimendua Belgradoko Gailurrean sortu zen 1961ean, 25 kide izatetik 96 izatera igaro ziren La Habanan 1979an. Elkarte honek, autodeterminazioaren aldeko jarrera, Apartheidaren kontrako jarrera, Nato eta Varsovia Hitzarmenaren kontrako jarrera, inperialismoaren kontrako borroka eta desarmearen aldeko jarrera defendatu zituzten. Herrien barneko kontuetan esku-sartzerik ez egotea ere eskatu zuten, baita NBEaren indartzea ere, nazioarenarteko harremanen demokratizazioa lortzeko.

Suezko kanalaren krisia 1956an

Ekialde Hurbila europar potentzia kolonialek -Frantzia, eta Erresuma Batua- kontrolatzen zuten. Egipton menpekotasun egoera hau 1952an aldatu zen, Nassaren lidergopean, Ofizial libreek estatu kolpea eman zutenean. Nasserek mundu arabiarraren benetako independentzia lortu nahi zuen, sozialismo arabiarra eta panarabismoa oinarritzat izanda. Bere egitasmoak defendatzen zuenez, independentzia politikoa lortzeko, Egiptok independentzia ekonomikoa behar zuen, eta horretarako modernizazio ekonomikoa ezinbestekoa zen. Helburu horrekin, Assuan-go presa eraikitzea proposatu zuen, eta proiektu hau aurrera eramateko finantzaketa behar zenez, Suezko kanala nazionalizatu zuen.

Suezko kanala nazionalizatzearen ondorioak

Frantziak eta Britania Handiak kanala kudeatzen zuten, eta etekin handiak ateratzen zituzten. Kanala nazionalizatzearen ondorioz eraso militarri ekin zioten Israelen laguntzarekin. Egoera honen aurrean, Sobietar Batasunak eta Estatu Batuek interbentzio militarra gaitzetsi zuten. Izan ere, Suezko krisiak agerian utzi zuen bi superpotentziek nazioarteko ordena kontrolatzen zutela, eta potentzia kolonial ohien ahultasuna ere erakutsi zuen, buru makur alde egin zutelako.

Krisi honen ondorioz, Ekialde Hurbilean Estatu Batuek europar potentziek utzitako hutsunea bete zuten. Horretarako, *Eisenhoweren* doktrina atera zuten, zeinen arabera, AEBek Ekialde Hurbilean esku hartuko zuten komunismoak bertako herrialderen bat mehatxatzekotan. Horrela, Ekialde Hurbila gerra hotzaren eszenatoki bihurtu zen: erregimen sozialistako herrialde arabiarrak Sobietarren alde jarri ziren (Nasseren Egipto, Irak, Siria...), eta beste batzuk, berriz, AEBren alde.

Deskolonizazioa

II Mundu Gerraren osteko bi hamarkadetan inperio kolonial britaniarra eta frantziarra desagertu ziren, eta hegemonia europarra bukatu zen. Aldi berean, Afrika eta Asian 50 Estatu berri inguru sortu ziren, mendebalde-ekialde gatazkak aurrera egiten zuten bitartean.

Deskolonizazioaren faktoreak

Independentziaren aldeko faktore erabakigarri bat mundu bipolarren sorrera izan zen, bi potentzia mundialak deskolonizatzeko-prozesuaren bultzatzaileak izan baitziren. Bestalde, NBE deskolonizatzeko-mugimenduei zilegitasuna emateko balio izan zuen, eta Lerrokatu Gabeko Herrialdeen Mugimenduen sorrera eman zen gatazka hau bideratzeko. Gainera, Europaren ahultasuna nabarmena izan zen garai hartan, inperioen ekoizpen industrialak asko jeitsi baitzen. Bestalde, askapen nazionalaren aldeko ideologiak garatu ziren: *Guraso fundatzaileen taldea* sortu zen, II eta III. Internazionalak kolonialismoaren aurkako ideiak zabaldu zituen,...

Invention of tradition

E. Hobsbawmek proposatutako *Invention of Tradition* kontzeptuak ere garrantzi handia izan zuen nazionalizatzeko prozesuan. Kontzeptu hau tradizio asmatuetan oinarritzen zen, praktikak edo erritu arautuak martxan ipiniz. Helburua, errepikapenaren bidez gizakiengan balioak eta legeak barneratzea zen, berria dena iraganen sustraitzeko. Horrela, herriak desberdintze-prozesu honi ekin zioten tradizio propioak indartuz eta asmatuz, nazioa ondo definitzeko eta atxikimendua berrindartzeko. Horretarako, tradizio asmatu guztiek historia erabili zuten, eta elementu desberdinak azpimarratu zituzten: arraza, kultura, hizkuntza, erlijioa, sinboloak...

Imagined communities

Bestalde, Andersonek bere *imagined communities* teoriarekin azaldu duen bezala, nazionalizatzeko prozesuak bideratzeko kontzientzia nazionala ezinbesteko osagarri bat izan zen, nazio baten partaide izatea azpimarratzen duen ideia, alegia. Kontzientzia nazionala sendotzeko zenbait tresna erabili izan dira: muga geografikoak zehaztea, erkideen arteko ezaugarrien desberdintze garbia, nazio baten sinboloak (banderak, ereserkiak...). Bestalde, eskola dugu, hiritarren artean sinismen eta mito konpartituak barnearazteko funtsezkoa dena. Honetaz gain, armadak ere garrantzi sinboliko handia du, gizonezko guztiak hiltzeko prest egon behar direlako aberria kanpo etsaietatik defendatzeko. Aldi berean, barneko etsaiak ere zehazten dira, gizatalde baten nagusitasuna indartzeko, beste baten aurka jotzen delako. Azkenik, historia dugu, nazioaren naturalizaziorako ezinbestekoa dena. Horretarako, istorioen eredu ziklikoa erabiltzen da: antzinako paradisuak, geroko erorialdia eta etorkizuneko erredentzia edo liberazioa, beti odol isuriaren bidez.

Indiaren independentzia (1947)

Indian, Kongresu Partiduak independentziaren aldeko borroka bultzatu zuen 1898tik aurrera, baina akordiorik ez zegoenez, 1942an Gandhik independentziaren aldeko mugimendua desobedientzia zibilaren bidetik eraman zuen. Egoera honen aurrean britaniarrek Gandhi atxilotu zuten, eta geroago, alderdiaren zuzendaritza osoa atxilotua izan zen. Ondorioz, protestak ugartu ziren Indian zehar, eta langileriak masa greba orokorra aldarrikatu zuen. Gatazka honetan 100.000 pertsona baino gehiago atxilotuak izan ziren.

Garai hartan jada Inperio Britainiarra ahuldua zegoen II.Mundu Gerraren ondorioz, baina Indiaren independentziaren aldeko borroka ahultasun hau are gehiago areagotu zuen. Horrela, 1946.urterako atxilotu guztiak aske utzi ziren, eta britaniarrak Kongresuko Partiduarekin Indiaren Independentzia negoziatzen hasi zen, 1947an lortuko zena.

Independentziaren osteko Indiaren banaketa britaniarrek proposatutako *Mountbatten planean* oinarritu zen, eta lurraldea bi estatutan banatu zen, non bi alderdi nagusi zeuden: Kongresuko Partidua eta Liga Musulmana. Gandhik ahalegin handiak egin bi komunitate erlijiosoak integratzeko, baina Estatu bi sortu ziren arrazoi erlijiosoengatik. Alde batetik Indiako batasuna gehiengo hinduarekin (Nehru), eta bestetik Pakistan, gehiengo musulmanarekin (Jinnah). Aldi berean, Pakistan bi zatitan banatu zen, ekialdekoa eta mendebaldekoa. Egoera hau arazo askoren iturria bilakatuko zen eta, azkenean 1971ean, gerra baten ondoren, ekialdeak independentzia lortu zuen, Bangladesh estatua sortuz.

Belgikako Kongoaren bilakaera

1885ean, Berlingo Konferentziaren bidez, Belgikako Leopold II.a erregeak Kongo bere gain hartu zuen, eta Kongoko Estatu Askea bezala izendatu zuen. Hala ere, izen hau 1908 aldatu zuten, eta Kongo Belgiarra izena eman zioten. Izan ere, egoera horrela mantendu zen 1960ra arte, Belgikatik askatu zenera arte eta Kongoko Errepublika demokratikoa ezarri zenera arte. Herrialde askearen lehenengo Lehen ministroa Patrice Lumumba izan zen, Afrikako buruzagi antiinperialista. Hala ere, zeregin hartan soilik hiru hilabetez jardun zuen, 1960eko ekainetik irailera. Izan ere, 1961eko urtarrilean, Lumumba eta haren alderdiko hainbat buruzagi exekutatu zituzten, usteez, CIAren laguntzarekin. Exekuzio hauen erantzukizunak zenbait erakundeei leporatu izan zaizkie:

Alde batetik, Belgikak Lumumbaren hilketan erantzukizun zuzena du, Katanga eskualdearen sezesioa sustatu baitzuten eta Tshombe Katangako presidente izendatu zutelako, Belgikaren interesak babesteko nahian. Bestalde, Estatu Batuek ez zuten Lumumba Lehen ministro bezala onartu, eta horrela, Lumumba Sobietar Batasunaren eskuetan utzi zuten. Aldi berean, uste denez, AEBetako zerbitzu sekretuen laguntza ezinbestekoa izan zen Lumumba erahiltzeko orduan. Honetaz gain, Nazio Batuen Erakundeak (NBE) ez zuen Lumumba babestu, ezta Kongoko Errepublika demokratikoaren gobernu legitimoa defendatu ere ez. Azkenik, kongoko eliteei dagokionez, Kongoko Independentziaren alde jokatu beharrean, harreman kolonialen alde egin zuten, Mobuturen diktadura babestuz.

Izan ere, Mobuturen diktadura 1961tik 1997ra luzatu zen, eta Kongoko Errepublika Demokratikoak Zaire izena hartu zuen. Mobutuk izugarritzko boterea hartu zuen, eta munduko pertsona aberatsenetako bat bihurtu zen. Hala ere, 1997an Kongo berrezarri zuten eta Desire Kabila buruzagi nagusia bihurtu zen. Gaur egun Kongoko Errepublika demokratikokoan kamitak dira nagusi, baina herrialdean 200 baino etnia gehiago daude (mongoak, lubak, bantuak...). Hizkuntza ofiziala frantsesa da, swahilia, shiluba eta kikongoa bezalako hizkuntzak ere erabiltzen badira ere. Erlijioari dagokionez ere gizarte oso anitza da, katolikoak, protestanteak, kinbangistak, musulmanak... elkarbizitzan daudelako.

Hirugarren munduaren sorrera

Herri deskolonizatu gehienetan gosearen, analfabetismoaren eta industriaren gabeziak nabarmenak ziren. Egoera honetan zeuden herrialdeen prozesu berri hau izendatzeko zailtasunak egon ziren: azpi-elikatuen herriak, azpigaratuen herriak, garatzeko bidean dauden herriak... Azkenean, 1952an Sauvy historiagileak Hirugarren Mundu izena asmatu zuen, Frantziako Iraultzaren Hirugarren Estamentuari erreferentzia eginez.

Herrialde bat azpigaratuta dagoela esatean, hainbat baldintzari egiten diogu erreferentzia:

- Erabateko pobrezia kronikoa.
- Hezkuntza eta osasun sistema zaharkituak.
- Langabezia indize altuak.
- Errentaren banaketa oso desberdina.
- Nekazal produktibitatearen eza.
- Askatasun formalen falta.

Azpigarapenaren Ezaugarri Ekonomikoak

Ekonomiari dagokionez, herrialde hauetan nekazaritza nagusi zen eta desoreka ekonomiko handia zegoen hiri eta landaren artean edo sektore moderno eta tradizionalaren artean. Bestalde, garraio azpiegitura oso txarra zen ere, eta herrialde hauek menpekotasun komertzial handia zuten. Herrialde aberatsetara lehengaiak esportatzen zituzten eta produktu industrialak erosten zituzten. Horrela, manufakturen prezioak gora egin zuen bitartean, lehengaien prezioa jaitsi egin zen, eta beraz, truketak ez zuen balio berdina. Azkenik, herrialde hauek finantza-menpekotasun nabaria zuten, garapena bultzatzeko zorpetu zirelako. Krisialditik irteteko, ajusteko politikak eman ziren, ondorio sozial latzekin.

Azpigarapenaren gizarte ezaugarriak

Herrialde hauen gizarte egoera oso antzekoa zen: osasun arazoak zeuden, elikadura eskasia zen, alde sozial oso handiak zueden...Gainera, hazkunde demografikoarekin, jaiotza-tasa altuak ziren bitartean, heriotza-tasak asko jaitsi ziren, desoreka handia sortuz. Bestalde, megahirien sorrerarekin landa eremuetatik migrazio handia eman zen, eta herrialde garatuagoetara migrazio mugimendu berriak sortu ziren ere.

Azpigarapenaren ezaugarri politikoak

Politikari dagokionez, hirugarren munduko herrialdeek iragan koloniala zuten. Izan ere, aurreko mendeetan potentzia europearrek Afrika eta Asiaren ustiapen politikoa eta ekonomikoa antolatu zuten, irabaziak lortzearen helburuarekin. Horrela, garraio azpiegitura sendoekin, kolonietako aberastasunak metropolira bidaltzen ziren, eta ez zen herrialde hauen barne garapenik ezta integrazio ekonomikorik bultzatzen.

Thomas Sankara, Burkina Fasoko liderra

Thomas Sankara (1949-1987), Afrikako Che Guevara bezala ere ezagutzen dena, Burkina Fasoko liderra izan zen. Bere ekimen iraultzailearekin, ustelkeriaren kontrako borroka, hezkuntza eta nekazaritzaren garapena eta emakumeen egoeraren hobekuntzak defendatu zituen. Sankarak kanpo zorra ez ordaintzea defendatu zuen, harreman koloniala mantentzea suposatzen zuelako. Izan ere, jarrera honen aurrean, Frantziak, Burkina Fasoren aginte kolonial ohiak, 1987ko urriaren 15ean Sankararen kontrako estatu-kolpea bultzatu zuen herrialdeko sektore tradizionalen babesarekin, eta Sankara erail zuten.

Sankararen argi eta itzalak

Argiak	Itzalak
<ul style="list-style-type: none">- Emakumeen aldeko jarrera- Nekazaritzaren aurrerapenaren aldekoa- Osasunaren aldeko kanpainak- Burokraziaren ustelkeriaren hondamena- Desertizazioaren kontrako neurriak- Garraiobidearen sare nazionalaren sorrera- Kanpo zorra ez ordaintzea	<ul style="list-style-type: none">- Epaiketa publikoak bermerik gabe- Iraultza defentsarako komiteak: polizia politikoa- Grebak egiteko eskubidea sahiestea- Kontra zeuden Irakasleen ordezkapena- Demokrazia eza

5.gaia

1960ko hamarkada miresgarria

Gerra Hotzaren distentsio etapa berria: John F. Kennedy eta Nikita Krushev

60ko hamarkadan disuasio nuklearra edo beldurraren oreka eman zen. Izan ere, bi superpotentzien armategi atomikoek bata bestearen hondamena ziurtatzen zuten, eta horregatik gerra ezinezkoa zen. Horrela, bake bizikidetasunaren garaia eman zen. Sobietar Batasunari dagokionez, desestalinizazioa eman zen, eta horrek inbasio sobietarraren beldurra gutxitu zuen Mendebaldean. Aldi berean, Estatu Batuetan Alderdi Demokrataren igoera eman zen, politika tolerante eta baketsuago baten aldekoa zena. Egoera honetan, negoziaketa-bide zuzenak ezarri ziren bi superpotentzien artean, eta *telefono gorria* elkarrizketaren sinboloa bihurtu zen. Eztabaida hauetan, arma nuklearren murrizketari buruz hitzarmenak sinatzeko akordiora heldu ziren.

1960ko hamarkada

1960ko hamarkadan, Estatu Batuek 1945ean lortutako nagusitasun militarra galtzen joan zen. Aldi berean, espazio-karrerari hasiera eman zitzaion, eta Sobietar Batasunak 1957an *sputnik* satelitea jaurti zuen. Egoera honetan, Estatu Batuetan izua zabaldu zen, eta nolabaiteko *Izuaren oreka* egoerara heldu zen. Gainera, gerra nuklear batek utz zezakeen ondorioen inguruan eztabaidatzen hasi zen, *Simioen planeta* bezalako zientzia-fikzio pelikulekin.

Aldi berean, Kennedyk jarrera aldatze argi bat ekarri zuen 1960 eta 1963 bitartean, non *amets amerikarra* bere gailurrera iritsi zen. Izan ere, Kennedyk erabilitako *Muga Berria* kontzeptuarekin pobrezia eta bazterkeriari aurre egitearen helburua finkatu zuen, bai estatu barruan zein bestelako herrialdeetan ere. Horretarako, Sobietar Batasunarekiko, Nazio Batuen Erakundearekiko eta Hego Amerikako herrialdeekiko elkarkonpontzeko jarrera nagusitu zen. Hala ere, proiektu honek porrot egin zuen, bere programa politikoaren ardatz nagusiak ziren ongizate Estatuaren eraketa eta Eskubide Zibilen Aldarrikapena atzeratu baitziren. Aldi berean, errepublikar administrazioaren kontinuismoa eman zen, eta Defentsarako aurrekontua hirukoiztu zuen. Izan ere, Kennedyren agindupean Vietnamen esku-hartzearen lehenengo pausoak eman ziren.

Kruscheven Garaia (1953-64)

Kruscheven garaian estalinismoaren kritika plazaratu zen, bere gehikeriak salatuz. Hala ere, ez zen sistema politikoa kritikatu, ezta alderdia ere. Izan ere, Stalinen garaiko errepresioa gizon baten erantzunkizuna zela defendatu zen, inolaz ere sistema osoarena. Horrela, ez zen alderdiaren botere monopolioaren inguruko inolako eztabaidarik zabaldu. Ondorioz, erregimenaren egiturak aldatu ezin zirenez, burututako erreformak oso ahulak eta mugatuak izan ziren, eta gainera, Krushev kargutik kendu zuten, burokrazia eta armadaren sektore batzuk erreformen kontra zeudelako.

Berlingo harresiaren eraikuntza (1961)

1960ko hamarkadaren hasieran Mendebaldeko eta Ekialdeko Berlin banatuko zituen harresi baten eraiketaren inguruko zurrumurrak hasi ziren. Horrela, 1961eko abuztuan Walter Ulbrichtek, Alemaniako Errepublika Demokratikoko (AED) presidentek harresia eraikitzea erabaki zuen, aurregerraren giroa zabalduz. Egoera honetan, elkarrizketa antinuklearrak izoztu ziren eta froga atomikoei ekin zieten. Mendebaldarrek Alemaniaren batasunari uko egin zioten eta egoera onartu zuten. Horrela, Berlin hiriaren barruan Mendebaldeko Alemaniaren eta Alemaniako Errepublika demokratikoaren arteko bereizkera zurruna egin zen, eta harresia munduaren banaketaren ikur bihurtu zen 1989an erori zenera arte.

Kubako misilen krisialdia (1962)

Gerra Hotzaren etapa honen nondik norakoak ulertzeko ezinbestekoa da 1959ko Fidel Castroren iraultzaren garaipena kontuan hartzea. Izan ere, egoera honen aurrean Estatu Batuak, CIAren babesean, Cochinos Badiatik inbasioa bideratu zuen, saiakerak porrot egin bazuen ere. Ondorioz, Kubako misilen krisia bezala ezagutzen dugun egoera lehertu zen. Izan ere, Sobietarrek Kuban misilak kokatzea erabaki zuten, eta Kennedyk, operazio honen aurrean, Kubako blokeoa ezarri zuten. Horrela, gerra totalaren arriskua nagusitu zen.

Gerra Hotzaren distentsioarako bidea

60ko hamarkadan Txina eta Sobietar Batasunaren arteko haustura eman zen, bloke komunistaren zatiketa suposatu zuena. Horrela *diplomazia triangular* izenekoa (AEB, SESB, Txina) eta polizentrismoarako joera bat garatzen hasi zen. Egoera berri honetan, Sobietar Batasunaren eta AEBen arteko harremana hobetuz joan zen. Izan ere, Kubako krisiak

agerian utzi zuen gerra nuklearraren arriskua bertan zegoela, eta bi superpotentziek halako gertakariak ekiditeko konprimisua hartu zuten. Ondorioz, auereko hamarkadetako armamentu karrera kontrolatu eta ordenatu zuten, honek suposatzen zuen gastu militar izugarria murrizteko eta, horrela, hondamendi ekonomikoa ekiditeko.

Vietnamgo Gerra (1964-1975)

Indotxina: Vietnamen amaigabeko gerra koloniala

II Mundu Gerran, Japoniak Vietnam, Laos eta Kanbodia okupatu zituen. Egoera honen aurrean, Ho Chi Minhek Vietnamen Independentziaren aldeko Liga sortu zuen, eta 1946an Vietnamgo Errepublikak Demokratikoa aldarrikatu zuen. Urte bere horretan Frantziak, aurretiko potentzia kolonialak, Indotxinako lurraldea militarki berreskuratzeko saiakerak egin zituen, zortzi urteko gerrari hasiera emanez. Hala ere, 1946an hasitako gerra hau 1954ean bukatu zen, Dien Bien Phuko batailako armada kolonialaren porrotarekin. Horrela, Genevako Konferentzian frantziarrek Indotxina utzi zuten, eta hiru estatu independente sortu ziren: Laos, Kanbodia eta Vietnam. Bestalde, Vietnam bi zatitan banatu zen, 17. paraleloa erreferentziazat hartuta Ipar Vietnam eta Hego Vietnam banatu baitziren.

Vietnamgo Gerra (1964-1975)

Ipar Vietnamek bere presentzia areagotu nahi zuen lurralde osoan eta horretarako 1960ean Hegoaldeko Vietnamgo Askapen Nazionalerako Frontea (*Vietcong*) sortu zuen. Egoera honen aurrean, AEBek komunismoaren hedapenaren kontrako neurriak hartu zituen, Hego Vietnameko diktadura militarra babestuz. Horrela, 1964an Estatu Batuek eraso masiboa egiteko erabakia hartu zuten, eta Ipar Vietnamen bonbardeatu zuten, gerra kimikoa eraginez. 1965ean gerra Laosera zabaldu zen eta 1968an Kanputxera. Egoera honetan, 500.000 soldadu estatubatuar baino gehiago eraman ziren bertara, baina ezin izan zuten gerrillaren trinkotasunari aurre egin. Ondorioz, Washingtonen gerra militarki irabazteko aukerarik ez zutela konturatu ziren, eta negoziazio bidea zabaldu zen. Azkenik, 1973an AEBetako soldaduek alde egin zuten.

Vietnamgo Gerra izugarritzko porrota izan zen Estatu Batuentzat, bai arlo militarri, sozialari zein politikoari dagokionez. Izan ere, neurri handi batean, nazioarte-mailan zuten ospea galdu zuten, eta konfidantza galera ere suposatu zuen haientzat. Bestalde, *Vietnam sindromeak* eragin izugarria izan zuen belaunaldi oso batean, porrotaren eta inpotentzia sentimenduak nagusitu zirelako gizartean. Gainera, gertaera honek hurrengo urteetan Carter edo Reaganek burutuko zituzten kanpo eta barne politikak erabat baldintzatu zituen.

Arrazakeriaren kontrako borroka AEBn

Esklabotzatik bazterkeriara XIX. mendean

XIX.mendean esklabotzarekin bukatzeko ezinbestekoak izan ziren zenbait aurrerapauso eman ziren. Alde batetik, 1865an Lincoln Presidenteak XIII zuzenketarekin esklabotza galarazi zuen, eta bestetik, XIV zuzenketarekin Ameriketako Estatu Batuetan jaiotako orori hiritartasun eskubidea eman zitzaion. Hegoaldeko Estatuetan, aldiz, beltzei ez zitzaien bozka-eskubidea eman, eta egoera honen aurrean 1870an XV zuzenketa onartu zen, edozein diskriminazio legez kanpo utzi zuena. Hala ere, Hegoaldeko Estatuetan Jim Crow legeak sortu ziren, eta estatu hauen konstituzioak aldatu ziren, beltzen bozkatzeko eskubidea galarazteko.

Arraza bereizkeria 50-60 hamarkadetan

50eko hamarkadan, munduko herririk abertsanean beltzak bai maila ekonomiko, politiko, kultural zein sozialean baztertuta bizi ziren, eta hori egunoroko bizitzako arraza-bereizkeriarekin lortzen zen (autobuseetan, jantokietan, ikastetxeetan...). Egoera honen aurrean, 1955.urtean beltzen protesta mugimenduari hasiera eman zitzaion, beltzen eskubide zibilen aldeko mobilizazioak eta kanpainak antolatuz. Momentu honetan kokatuko genuke autobusetako segregazioa salatzeke Rosa Parksen protesta.

Horrela, beltzen mugimendua gero eta antolatuagoa bilakatu zen, helburu zehatzak bilatzen zituzten lider berri eta karismatikoekin. Honen adibidetzat ditugu esaterako, jarrera bakezalearen eta integrazioaren alde zegoen Marthin Luther King eta Malcom X, zuriekiko elkarlanari uko eginez, beltzen elkartasuna aldarrikatzen zuenak. 60eko hamarkadan zehar azken joera hau hedatuz joan zen eta beltzen mugimendua erradikalagoa bilakatu zen, Black Panthers bezalako alderdiekin edo *black power* bezalako leloekin, kultura amerikarraren ordez, kultura afroamerikarra defendatzen zutenak.

Martin Luther King

Martin Luther King (1929-1968) Eskubide Zibilen aldeko borrokaren figurarik garrantzitsuenetariko bat izan zen. Biolentziarik gabeko borroka baten alde egin zuen, eta horretarako, Estatu Batuetako zuriekiko elkarlana bilatzen zuen. Izan ere, mugimenduaren helburutzat Estatu Batuetako zurien eta beltzen arteko berdintasuna finkatu zuen, eta zurien eta beltzen arteko elkarbizitza hau *our nation* kontzeptuarekin azaldu zuen. Izan ere, beltzen hiritartasun-eskubidea aldarrikatu zuen, eta 1963ko Washingtonerako Ibilaldian lana eta askatasuna eskatu zituen beltzentzat. Horretarako, eskoletako arraza bazterkeriaren

amaiera, arrazakeriarekin bukatzeko legeak, hiritar guztientzat 2 dolarretako gutxiengo soldata... eskatu zituen. Aldi berean, Vietnamgo Gerraren kontrako jarrera hirmo eta gogorra izan zuen, Estatu Batuak indar inperialista zela salatuz. Gainera, pobreziaaren kontrako jarrera oso aurrerakoia izan zuen.

Malcolm X

Malcolm X 1925ean jaiotako ideologo eta politikari beltza izan zen. Martin Luther Kingek ez bezala, nazio beltzaren sorrera defendatu zuen, eta mugimendu nazionalistaren bultzatailea izan zen. Beltzen nagusitasuna defendatu zuen zurien gainetik, eta haien arteko bereizketa zurruna egin zuen. Izan ere, Estatu Batuetako hegoaldean Estatu beltz bat sortzearen alde egin zuen. Nazio berri honetan islama proposatuko zen erlijiotzat, eta beltzak babesteko, edozein borroka bide onartuko zen. Honen helburua, azken finean, belztasunarekiko harrotasuna sustatzea zen. Izan ere, beltzen autoestima asko handitu zen, *black is beautiful* bezalako leloekin. Horrez gain, komunitate beltza jatorrizko herria bezala eta Afrika jatorrizko lurraldea bezala definitu zituen, eta horrela, Afrika Kontinentalarekiko lotura handiak sortu ziren. Gainera, Eskubide zibilen aldeko borroka giza eskubideen aldeko borroka bihurtu nahi zuen, nazioarteko elkartasuna eta NBEaren laguntza lortzeko. Honen ildotik, Hirugarren Munduko Herrialdeekin elkar harremanak bultzatu zituen, deskolonizazioa eta independentziaren aldeko borroka eta eskubide zibilen aldeko borroka oso lotuta zihoazelako berarentzat.

Pantera Beltza Alderdia

Pantera Beltza alderdia 1966an sortu zen. Malcolm X-en heriotzaren ostean bere ideien oinordeko bezala jaio ziren. Izan ere, helburutzat bere ideiak gauzatzea zuten, Ameriketako Estatu Batuetako Beltzen Komunitatearen bizi kalitatea hobetzeko. Pantera Beltzek beltzen komunitatea zurien eta polizien biolentziaz babesteko armen erabilpena defendatu zuten autodefentsa modura. Hauek dira 1968an aurkeztutako egitarauaren 10 puntuak:

1. Askatasuna nahi dugu. Gure herriaren patua guk geuk zehaztu nahi dugu: **nazionalista.**
2. Gure jendearentzako lanpostuak nahi ditugu: **eskubide zibilak**
3. Gizarte beltzari kapitalistek egiten dieten laburreten amaiera nahi dugu: **eskubide zibilak.**
4. Etxebizitza txukunak nahi ditugu, gizakiak merezi duen bezala: **eskubide zibilak.**

5. Gure komunitatearentzat ganorazko irakaskuntza nahi dugu, Estatu honen benetako izaera agertzen duen irakaskuntza. Guk historian izan dugun garrantzia azaltzea nahi dugu: **nazionalista eta eskubide zibilak**
6. Gizarte beltzarentzako doako osasun zaintza nahi dugu: **eskubide zibilak**
7. Poliziaren aurkako erasoekin amaitu nahi dugu, AEBetako beltzen eta kolokreko beste hiritarren hilketekin: **eskubide zibilak**
8. Beltzen aurkako eraso guztiak amaitzea nahi dugu: **eskubide zibilak**
9. Beltz guztien askatasuna nahi dugu, eta espetxe federaletan eta abar dauden pertsonak ere askatu beharko lirakete: **eskubide zibilak**
10. Jana, etxebizitza, hezkuntza, janzkera, justizia eta teknologia modernoek kontrola nahi dugu: **eskubide zibilak**

Pantera Beltza alderdiaren sorrerak ezker berriaren sorrera suposatu zuen AEBan. Ezker berri honetan emakumeen tokia aldarrikatu zen, arrazakeriaren kontrako borrokan aurreko gidari guztiak gizonak izan zirela ikusita (Malcolm X, Martin Luther King...). Honen adibide da **Elaine Brown**, alderdiaren presidentea izan baitzen 1974-1977 bitartean.

Beste ikono feminista bat **Angela Davis** izan zen, politikari marxista eta filosofia irakaslea. Davisek umetatik ezagutu zuen beltzen kontrako indarkeria, eta hortaz, Pantera Beltzen jarraitzailea bilakatu zen. Pantera Beltzen mugimenduan zebilela, Kaliforniako Unibertsitateko filosofia irakaslearen zereginetik bota zuten, Alderdi Komunistan sartuta zegoelako. Horretaz gain, 1972an Soledad Stateko kartzelan izandako hilketa batzuekin harremandu zuten, eta kasuak mundu mailako hedapena izan zuen. Hala ere, ez zuten kondenatu, eta 1973an absolbitu egin zuten.

Beltzen bazterkeriaren kontrako mugimenduaren balantzea

Beltzen arrazakeriaren kontrako borroka ondorioz lege-aurrerapausoak handiak eman ziren, eta honen adibide da Kennedyren garaian eskubide zibilen legea prestatu izana eta Johnson garaian onestu izana. Izan ere, 1965ean, arraza-bereizkeria debekatu eta beltzen bozka-eskubidea bermatu zen, eta lehendabiziz, epaile beltz bat izendatu zen Auzitegi Gorenerako. Garai hartan ere, 1968ko Mexikoki Olinpiar jokoetan *Black Power* adierazpena mundu osoaren aurrean erakutsi zen Tommie Smithen eta John Carlosen ekintzaren ondorioz. Hala ere, legediak eta errealitateak talka egin dute urte guzti hauetan, estatistikek diotenez, beltzen getoak eta pobrezia handituz jarraitzen dutelako.

68ko maiatza

Mendebaldeko kulturaren krisia 1960

II.Mundu Gerraren ostean, mendebaldeko kulturaren krisialdia areagotu zen, zibilizazioaren egonezinak eta Munduaren zentzugabetasunak bultzatuta. Egoera honen aurrean, 1960. urtetik aurrera, kulturaren iraultza hasi zen moralak eta pentsaeretan eta norberaren betebeharrak eta eskubideak finkatzeko orduan.

Horrela, familia ereduak kolokan jarri zen: jada gizonezkoaren autoritatea ahultzen hasi zen, ezkontzak balioa galdu zuen, emakumeek haien askatasuna aldarrikatzen hasi ziren... Aldi berean, sekularizazio-prozesua areagotu zen, hau da, Estatuaren eta Elizaren arteko banaketa gero eta nabariagoa zen, eta ondorioz, erlijioaren eragina izugarri jaitsi zen. Izan ere, erlijioa esparru publikora mugatu zen, eta gizarteak konfidantza zientzian jartzen hasi zen. Egoera hau hobetzeko Vatikanoko II.Kontzilioa eman zen, fededunen konfidantza berriz bereganatzeko asmoz, baina punturik eztabaidagarrienak ez ziren landu (emakumeen papera elizan, sexualitatearekiko posizioa...) eta beraz, egoera ez zen hoberrantz joan.

Eskulangileen bilakaera eta gizarte harremanak

Mendebaldeko kapitalismoaren urrezko aroan eta Ongizate Estatuari esker, langileen lan eta bizi baldintzak nabarmenki aldatu eta hobetu ziren. Aldi berean, gizarte-kontsumoa zabaldu eta "demokratizatu" zen. Aldi berean, lan harremanak aldatu ziren, klase borroka alde batera utzi eta negoziazioaren bidea nagusitu zelako. Gainera, garai hartan langileria aniztasuna eman zen, immigrazioen gorakadaren ondorioz. Horrela, pobreek, baztertuek eta gutxiengo etnikoek azpiklase bat sortu zuten, prekarietatean biziko direnak.

Subjektu iraultzaile berriaren sorrera

Marxismo ortodoxoak botere-harremanak harreman produktiboetan zeudela defendatu zuen, baina momentu honetan gizartean botere-harreman gehiago identifikatu ziren. Horrela, botere harreman hauetan daude subjektuak iraultzaileak izan zitezkelaren ideia zabaldu zen, protesta sozialaren subjektua izan zitezkeela. Horrela, proletalgoa eta nekazalgoaz gain, bestelako sektore ere iraultzaren subjektuak bilakatu ziren, eta arazo infraestruktural eta superestrukturalaz gain beste arazo batzuk ere jaso ziren. Horrela, gizarte-mugimendu berrien sorrera eman zen, belaunaldi berriek bultzatuta: ikasleak, irakasleak, intelektualak, ezker-aldeko langileak, gazte aurrerakoiak, ekologistak...

Gazteriaren sorrera eta bere gaitasun iraultzaileak

Orain aipatutako irautzaren ildotik, 1960etik aurrera beste gizarte-talde bat dugu, gazteria, modu independentean agertzeko gaitasunarekin. Gazteriak belaunaldien arteko erabateko haustura suposatu zuen, eta sinbolikoki honen adierazgarri nagusia rock musika izan zen, denboraren aldaketaren adierazle nagusia bilakatu zelako. Aldi berean, bizitza ulertzeko beste modu bat zabaldu zen (alkohola, tabakoa, drogak...) baita askatasuna eta sexualitatea bizitzeko beste modu bat ere. Egoera honen aurrean, eta kontsumo gizarte baten aurrean gaudela kontuan hartuta, kontsumo ondasunen saltzaileen helburu bilakatu zen gazteria, nolabaiteko erreferenteak ziren. Aldi berean, homogeneousitate prozesuan buru-belarri sartu ziren, eta nazioarte mailako kultura komuna garatu zen gazteriaren inguruan.

Maiatza frantziarraren aurrekariak 60ko hamarkadan zehar

60.hamarkadan zehar 1968ko iraultzaren hainbat pizgarri eman ziren, gazteriaren haserrea edo itxaropena piztu zutenak:

- Vietnamen interbentzio amerikarra.
- 1965ean iraultza kultural txinatarra, maoismoa erreferentetzat hartuta.
- Iraultza kubatarra: Fidel Castro eta bereziki El Che. Che Guevarak beste subjektu iraultzaile bat sortu zuen, subjektu indigena, neoliberalismoaren eta kolonialismoaren kontra gerrillismoa erabiliz.
- Algeriako independentziak 1962an itxaropen berriak eman zizkion Hirugarren Munduko herrialdeei.
- Malcolm X, Marthin Luther King... bezalako aktibisten borrokarekin arraza-protesta asko gogortu zen Estatu BAuetan, eta borroka honen protagonistak ikasleak bilakatu ziren.
- Kontrakultura bat sortu zen, eta Hippy Mugimendua antolatzen hasi zen. Hippien eskutik bizitza, maitasuna, askatasuna, natura... ulertzeko modu berriak zabaldu ziren.

Gertaeren bilakaera 68an

1. Ikasle-mugimenduaren piztea

1958 eta 1968 bitartean Frantzia V. Errepublika ematen ari zen, eta De Gaulle jeneral eta presidenteak egonkortasuna lortzeko asmoz, kontserbadurismoa defendatu zuten. Aldi berean, ikasleen mugimendua nazioarte mailako mugimendu bat bilakatu zen, AEBetako Unibertsitateetan piztu zena eta Europara heldu zena, Frantzia eragin handiena izanez.

Egoera honetan, unibertsitate campusak protestarako eremu bihurtu ziren. Lehenengo pausua Nanterreko ikasleek eman zuten masifikazioaren, irakaskuntza zaharkituaren, hierarkiaren eta diziplinaren kontra altxatuz. Gainera, ikasleek eta langileek bat egin zuten, mugimenduari indarra emanez. Egoera honetan, borroka-metodo desberdinak proposatu ziren, baina langile-grebaren presio gaitasuna funtsezkoa izan zen. Hala ere, mesfidantza giro handia sortu zen langileen eta ikasleen artean: langileak ez ziren ikaslez fidatu idealista eta burges txiki izateagatik eta ikasleak ez ziren langileez fidatu sindikatu handiek gobernuekin kolaboratzen zutelako.

2. Hamar eguneko greba orokorra

Daniel Cohn Bendit 68ko mugimenduaren liderra izan zen. Liskarrak maiatzaren 3an hasi ziren, poliziak Sorbona unibertsitateko ikasleak aterarazteko agindua eman zutenean. Ondorioz, ikasleen matxinadak ugaritu ziren, eta poliziaren eta ikasleen arteko istiluak areagotu ziren. Horrela, protesta-boladak areagotu ziren eta ikasle-liderrei espedientea egin zieten. Gainera, Nanterreko Fakultatea itxi zuten, eta egoera honen aurrean ikasle greba orokorrarako deialdia egin zen maiatzaren 13rako. Greba honetan lan-etenaldiak irregularrak izan arren, orokorrean manifestazio jendetsua izan zen. Ondorioz, langileriak greba orokorra aldarrikatu eta protagonismoa irabazi zuen ikasle mugimenduaren aurrean.

3. Mugimenduaren banaketa

Egoera honetan, sindikatu handiek ezin zuten Greba mugimendua kontrolatu, grebalariek demokrazia kontuak, lan errebindikapenak eta sistemarekiko kritika orokorrak planteatzen zituztelako. Ondorioz, sindikatuen burokraziek borroka lan eskakizunetan zentratu zuten, eta maiatzaren 25a, 10 greba-egun ondoren, Gobernuak soldatarekiko eskaerak onartu zituen: lanaldia, erretreta eta eskubide sindikalak. Momentu horretatik aurrera mugimenduaren barruan banaketa handia sortu zen: ikasleek salbazio-gobernu unitario bat proposatu zuten, sozialistek behin-behineko gobernu eta De Gaullen dimisioa eskatu zuten, eta komunistek ezker-batasun gobernu baten alde egin zuten.

4. Emaitzak epe luzean eta epe laburrean

Iraultza egoera honetan De Gaulle presidenteak alde egin zuen eta botere hutseko egoera zabaldu zen. Hiru egunetara, telebistatik mezu bat bidali zuen, bai bera zein Pompidou lehen ministrariak boterean jarraituko zutela eta hauteskundeak deituko zituela esateko. Aldi berean, Frantzia guztiaren laguntza eskatu zuen, Gobernuaren aldeko lehenengo manifestazioa antolatuz Parisen. Hauteskundeak Pompidouk irabazi zituen eta De Gaullek dimititu zuen. Aldi berean, Sozialistek eta komunistek aulkiak galdu zituzten parlamentuan, neurri handi batean, landa eta hiriarren arteko talkarengatik. Epe luzeari begira, aldiz, bizimoduak, pertsonen arteko harremanak eta balioak erabat aldatu zituen.

68ko Mugimenduak nabarmendu zituen elementuak

- Ezker-aldeko ortodoxiaren kontrako irakaspena eman zen, iraultza bideratzeko aliantza bakarra langilegoarena eta nekazalgoarena zenaren ideien kontra jo zelako.
- Eskaera ez-materialek paper izugarria izan zuten, irudimenaren eta askatasunaren balioei garrantzi handia eman zitzaielako errepresioaren, autoritarismoaren eta gizarte-hierarkien aurkako borrokan. Bestalde, nabarmentzekoa da ere utopiaren garrantzia, baita erreformismoaren kritika ere.
- Antolaketa-sistema berriak proposatu ziren, aurreko egiturekin konparatuz gero aldakorragoak, demokratikoagoak... zirenak. Horrela, alderdien burokrazia eta hierarkia kolokan jartzen hasi ziren, eta ordean, mugimendu asanblearioa defendatu zen erabakiak hartzeko forma demokratikoa bezala.
- Kale-borrokarako teknika berriak garatu ziren, bereziki, barrikaden erabilpenari dagokionez. Zentzu honetan gizarte mugimendurako teknologia bultzatu zen, eta teknika berri hauek bai ikasleak zein poliziak ikasi zituen.
- Masa-komunikabideen rola izugarria izan zen, manifestazioak telebistan ikusi ahal zirenez, hedapen unibertsala izan zutelako. Aldi berean, mugimenduaren kartelak eta esloganak mundu osoan ezagunak egin ziren.

Gizarte mugimendu berrien sorrera

Herbert Marcuse-ren *Dimentsio bakarreko gizona* (1964)

Herbert Marcus filosofoak gizarte mugimenduen azterketa sakona egin zuen *Dimentsio Bakarreko Gizona* lanean. Marcusek Gerra Hotzaren garaiko mendebaldeko kapitalismoaren zein komunismo sobietarren eredua errepresio sistemak direla salatu zuen. Azterketa honi jarraituz, subjektu iraultzailea ez dela hiri proletargoa ezta intelektuala ere ondorioztatu zuen. Izan ere, Marcusen subjektu iraultzaileak bestelakoak ziren, marjinetan bizi zirenak, alegia (arrotzak, zapalduak, langabetuak, gutxiengoak, sistemaren baztertuak direnak...)

Afroamerikarren eskubide zibilen aldeko mugimendua (1955-1968)

Afroamerikarren eskubide zibilen aldeko mugimendua eredu bat izan zen ikasle mugimenduentzat, askatasunean, errespetuan, duintasunean eta berdintasun ekonomiko eta sozialean oinarritutako borroka izan baitzen. Izan ere, desobedientzia zibileko eta indarkeriarik gabeko protesta-ekintzak burutu zituzten, hala nola, boikotak, eserialdiak, martxak... Hauei esker legegintza-lorpen azpimarragarriak lortu zituzten, esaterako, eskubide zibilen 1964ko legearen onespena (Civil Rights Act), edo boto-eskubideei buruzko 1965eko legea (Voting Rights Act). Horrela, afroamerikarrak politikagintzan sartu ziren berriro ere, eta Estatu Batuetan zehar, gazteek ekintzarako inspirazioa jaso zuten.

Gizarte mugimendu berriak

Gizarte mugimendu berriak mundu hobe baten alde borrokatu zuten, eta ekintza kolektiboaren adierazpenak dira. Hauek gizarte-aldaketak eragiteko elkartasuna eskatzen dute, errealitatea beste modu batez ulertzea suposatzen zuelako. Gainera, normaltasun-arautegiaren muga apurketa dakar, eta ondorioz, arau eta legitimazio berrien sorrerarako gaitasuna dute. Mugimendu guzti hauek ezaugarri komun batzuk zituzten:

Alde batetik, ez ohiko ekintza politikoaren estilo berria suposatu zuten, sistemaren kontrako zentzu handia baitzuten. Gainera, erakundearen egitura deszentralizatua dute. Aldi berean, bizitza politikoaren zabalkundea ahalbideratzen dute, hiritarrei interesatzen zaizkien arazoak erdigunean jartzen dituztelako. Bestalde, klase ertaineko partaide asko biltzen dituzte. Azkenik, ez dute sistema ideologiko koherente bat garatzen. Izan ere, badakite zer ez duten nahi baina ez dute eredu alternatibo bukatua aurkezten.

Gizarte Mugimendu Berrien sorreraren zergatiak

Gizarte mugimenduan sorrera ulertzeko hainbat ikuspuntu desberdin daude:

Karl Werner Brandentzat Gizarte Mugimendu Berriak gizartearen kontrako erreakzio bezala ulertu behar dira, industri-hazkundearen ondorio negatiboen aurrean sortzen direnak. Ronald Inglehartentzat, berriz, Gizarte Mugimendu Berriek gizarte balore aldaketak azaltzen dituzte, balore postmaterialistak. Izan ere materialismoak segurtasun ekonomikoari eta fisikoari ematen dizkio lehentasuna, eta postmaterialismoak, aldiz, norbanakoaren adierazpen askatasuanari eta bizitza-kalitateari.

Gizarte Mugimendu Berrien sorreraren testuingurua

Gizarte mugimendu berrian sorrera ulertzeko garai hartako testuingurua kontuan hartzea ezinbestekoa da:

1950ko hamarkadan aurrerakuntzan konfiantza handia jartzen da, eta horrela, materialismoaren garapen azkarra ematen da. Egoera hau, berriz, 1960ko hamarkadan aldatu zen, gizarte oparoaren alde ilunak agerian jarri zirelako. Horrela, oparotasunaren kontrako lehenengo kritikak iritsi ziren. 1970ko hamarkadan krisialdi ekonomikoak etengabea omen zen aurrerapena kolokan jarri zuen, eta aldi berean, itxaropen utopikoek porrot egin zuten. Garai hartan norbanako-aldaketa nabarmena eman zen, aldaketa subjektiboa gertatu zelako. Horrela, mugimendu sendo handiak sortu ziren (ekologismoa, ikasle eta langile borroka...). 1980ko hamarkadan mentalitate postmodernoa zabaldu zen, eta aurreko hamarkadan sortutako mugimenduak instituzionalizatu ziren, errebindikapenak alderdi politikoek hartu zituztelako.

Testuinguru honetan, Gizarte Mugimendu Berriek aurrera egin zuten bereziki hiru baliabidei esker. Alde batetik, giza eskubideen aitortpenak eragin handia izan zuen, XIX. mendean existitzen ez ziren eskubideak errealitate bat bilakatu zirelako XX. mendean. Bestalde, hainbat gertaera harrigarriek gertaera horien kontrako protestak eta mobilizazioak ugaritu zituzten (gerrateak, Chernobyl...). Mugimendu hauen barnean bi estrategia mota zehaztu ziren, alde batetik, estrategia erradikala eta garbia, eta bestetik, estrategia moderatua, zale gehiago erakartzeko asmoa zuena.

Emakumearen egoeraren aldaketa

II. Mundu Gerraren ostean ez zen gizarte aldaketa esanguratsurik egon, gizonarekiko nagusitasuna ez baitzen zalantzan jartzen. Hala ere, 1960eko hamarkadan funtsezko aldaketak eman ziren, feminismoaren bigarren bolada bezala ezagutzen duguna. Izan ere, emakumeen artean etxetik kanpoko lana zabaldu zen, eta emakumeak ordaindutako lan-merkatuan sartu ziren modu masiboan. Bestalde, instituzionalki ere aurrerapen handiak eman ziren. 1966an NOW (*National Organization for Women*) erakundea sortu zen, eta emakumeen, eskubideen zabalkuntza eman zen (antisorgailuen eskubidea, abortuaren aldeko legeak...). Prozesu guzti hau feminismoaren lehen boladarekin konparatuz gero, aldaketa nabarmena suposatu zuen. Izan ere, feminismoaren lehen boladan eskubide zibilak eta sufragioa aldarrikatu ziren, baina bigarrean, berriz, gorputzak eta askatasun indibiduala erdigunean jarri ziren.

Simon de Beauvoir filosofoak *Bigarren sexua* (1949) lanean egindako ikerkuntzarekin izugarritzko aurrerapena eman zen, feminitatea gizarte-eraikuntza bat dela defendatu baitzuen. Beraz, kontu kultural bat bada, alda daiteke, ez baita biologikoa. Argudiaketa honekin argumentu biologiko guztiak deseraiki ziren, eta feminismoaren aurkikuntza garrantzitsuenetarikotzat hartzen da oraindik ere. Lan hau 1949an idatzi zen, eta garai hartan Simon de Beauvoirrek ez zuen bere burua feministatzat hartzen. Izan ere, garai hartan ez zegoen gizarte mugimendurik, eta feminismoaren lehen bolada ahaztua zegoen jada. Gerora, bigarren bolabadako feministek erreferentetzat hartu zuten bere lana, eta beraz, feminismoaren bi aldien arteko *zubia* izan zen.

Mugimendu feminista berria (bigarren bolada), 1960tik aurrera

Beste gizarte mugimenduekin konparatuz gero, feminismoak aspaldiko ohiturei eta kultura-kodeei aurre egiten dielaren berezitasuna du. Izan ere, feminismoak naturaltzat ematen diren gauzak, prozesuak, nortasunak... deuseztatzen ditu. Teoria feministak arruntak diren hainbat portaera genero botere harremanen emaitzak direla azaltzen du, eta emakumeei buruzko aurreritziaren jatorri erligiosoak, filosofikoak, historikoak eta zientifikoak... azaltzen ditu. Aldi berean, teoria feministak genero zapalkuntza legitimatzen dituzten diskurtsoak eta praktikak agerian uzten ditu.

Feminismoaren bigarren boladak *personala dena politikoa da* leloa edo aldarrikapena uzti digu, gaur egun ere garrantzi izugarria duena. Esaldi honek mundu pribatua eta familia patriarkala hartzen ditu salaketa eta analisiaren xede nagusitzat. Horrela, etxeetan gertatzen dena aztertzen hasten da: familia barruko zapalketa, etxekolanen ardurak... Honek aurrerapauso handia suposatu zuen, arazo guzti hauek eremu politikora eraman zituelako, eta beraz, hobetzeko eremua bilakatu zen.

Aurrerapen guzti hauek gorpuztaren politikak bultzatu zituzten. Alde batetik, sexualitatea plazer-esparru gisa bezala ulertzen hasten da, eta amatasunaren, ugalketaren eta sexu praktikaren arteko lotura hausten da. Ondorioz, antisorgailuak hedatzen hasten dira, eta emakumeek gorpuztaren kontrola aldarrikatzen dute. Aldi berean, abortatzeko eskubidea agertzen da emakumeen subiranotasunaren adierazpen nagusi gisa bezala, eta sexu- eta ugalketa-eskubideak giza eskubide gisa onartzen dira.

Frankismoa

Frankismoa 40ko hamarkadan: faxismoarekiko atxikimendua

Gerra Zibila bukatuta (1936-1939) II Mundu Gerra hasi zen, eta Italia eta Alemaniak Francori laguntza eman zioten bezala, Francok ere bi herrialdeak lagundu zituen, faxismoaren ideologiak biltzen zituelako hirurak. II Mundu Gerra bukatuta eta ardatzak galdu zuela, Errepublikarrek faxismoaren beherakada espero zuten Espainian ere, baina ez zen hala izan, eta hau izan zen hain zuzen ere errepublikazaleen bigarren porrota. Aldi berean, jarrera antikomunista irmoa bereganatu zuen Francok Gerra hotza zela eta, eta figura erabilgarria izan zen mendebaldeko blokea eraikitzerako orduan.

Barne politikari dagokionez, errepresio ikaragarriko garaia izan zen 40ko hamarkada. Bere erregimen faxistatik kanpo geratzen zen guztiarekin amaitu nahi zuen (euskaldunak, feministak, errepublikazaleak...), eta horrela, 150.000 hildako baino gehiago egon ziren. Ekonomia mailan, bestelako erregimen faxistetan bezala, autarkia eta protekzionismoa ezarri ziren, gerraosteko krisialdi ekonomikotik ateratzeko aitzakiarekin. Ondorioz, nazioarteko isolamendua eman zen, eta Espainia NBEtik kanpo geratu ziren.

50ko hamarkada: nazioarteko onespina

Diktadura frankistaren bigarren aldian 50eko hamarkadan kokatzen dugu, non erregimena egonkortu zen eta nazioarteko onarpenera lortzeko hiru gertakari nagusi eman ziren. Alde batetik, 1953an Vatikanorekin Konkordatuak sinatzeak zilegitasun morala eman zion Francori, eta Elizak erregimenean zuen eragina areagotu zuen. Bestalde, Estatu Batuekin base militarrek Espainian ezartzeko hitzarmena burutu zen, eta horrela AEBn onarpenera lortu eta merkataritza harreman txiki batzuk ezarri ziren. Izan ere, 1957an NBEk onarpenera eman zuen eta Espainia eskubide osoko partaide bilakatu zen.

Hala ere, pobrezia eta atzerapen ekonomikoa begi bistakoak ziren, eta autarkia porrot ekonomikoa itzela izan zela agerian geratu zen. Ondorioz, autarkiari uko egitea ezinbestekoa zen egoera ekonomikoa hobetzeko. Horrela, teknokratek bultzatuta, 1959an egonkortasun plan ekonomikoa proposatu zen, protekzionismotik liberalismora igarotzeko.

60ko hamarkada: aperturismoa eta modernizazioa

60ko hamarkadaren hasieran krisialdi ekonomikoa ikaragarria eman zen Espainian, 200.000 langabetu baino gehiago utziz, eta ondorioz, neurri aperturistak onartu ziren egoera ekonomikoa hobetzeko asmoz. Horrela, kanpoko kapitala sartzen utzi zen eta pesetaren devaluazioa eman zen, turismoa eta esportazioak areagotzeko asmoz. Krisialdiak bultzatuta, Espainiar lanekuaren emigrazio mugimendu handia eman zen, eta bi milioi emigranteek Europara jo zuten: Suitzara, Alemaniara, Frantziara, Holandara... Emigrazio honek krisialdetik irtetzea ahalbideratu zuen, 7.000 milioi dolar bidali baitzituzten kanpotik.

Aldi berean, espainiar emigrazio honek oparotasun aroa eskaini zien Europako herrialdeei, inmigrazio hau guztiz aproposa izan baitzen ongizate estatuak eraikitzeko bidean. Alde batetik, bigarren mailako lanak egin zituzten, soldata baxuekin eta zapalkuntza tasa altuarekin, baina kapitalistei irabazi handiak emanaz. Aldi berean, Gizarte segurantzaren bermatuko zuten: inmigranteen soldata zati bat estatuari eman zioten baina ez zituzten onurak gozatu.

6.gaia

Ekialde hurbileko gatazka

Ekialde Hurbila balio handiko eskualdea da hainbat ikuspegi desberdinetatik begiratuta. Alde batetik, balio geoestrategikoa du Mediterraneoan. Bestetik, balio ekonomikoa du, munduko petrolio-erreserbarik handienak bertan dituztelako. Gainera, sinbolikoki ere oso garrantzitsua da, hiru erlijio monoteista handien jaioterria baita. Ondorioz, esanahi erlijioso berezia du juduentzat, islamiarrentzat eta kristautentzat.

Palestina Auzia, II. Mundu Gerra baino lehenago

Ekialde Hurbileko lurraldeak otomanoen menpe egon ziren XX.mendeko hasierara arte. XX.mendearen hasieran, berriz, arabiar nazionalismoa sortu zen. Nazionalismo hau ez da herri batekoa, panarabiarra baizik, hau da, herri arabiarren elkarketa bilatzen zuen.

Lehen Mundu Gerrak eragin handia izan zuen Ekialde Hurbilean eta erabat aldatu ziren alde horretako egoera eta mapa politikoa. Izan ere, 1916an Britainiako eta Frantziako agintariek *Sykes-Picot* akordio sekretua hitzartu zuten, eta Ekialde Hurbileko lurraldeak bi potentzien artean banatu ziren. Frantziak egungo Libano eta Siria hartu zituen, eta Ingalaterrak, berriz, Bagdad eta Basora eta Jordania. Azkenik, akordioaren arabera, Palestinak nazioarteko administrazioa izango zuen.

1917an Britaniarrek Balfour adierazpena eman eta egoera are nahasiagoa bilakatu zuten, Palestinan juduentzako «egoitza nazionala» sortzeko laguntza eskaini ziolako mugimendu sionistari. Adierazpenean palestinar herriaren aurka egingo ez zutela esaten da, ezta bestelako herrialdeetan juduek zituzten eskubideen aurka ere ez. Aldarrikapen honek kontraesan handia suposatu bazuen ere, sionistek bere alde erabiliko zuten.

Nazionalismo arabiarra eta palestinarra

Lehen esan bezala, nazionalismo arabiarra ez da herri batekoa, panarabiarra baizik, hau da, Mediterraniotik Pertsiarainoko tribu guztiak batasun arabiarren inguruan batu nahi zituen. Etsaia inperio turkiarra zen eta independentzia lortu nahi zuten. Nazionalismo palestinarra, berriz, juduen presentziaren aurkako erreakzio nazionalista bezala sortu zen 1920, 1938 eta 1939.urteetako altxamenduekin.

Sionismoa: nazionalismo israeldarra

Sionismoa 1890 hamarkadan sortutako mugimendu laikoa da. Izan ere 1897an ospatutako Lehen Kongresu Sionistan azaldu zuten bezala, juduak ez dira talde erligioso bat, talde nazional bat baizik. Horregatik, nazio lurralde batean estatu bat eraiki nahi du, eta horretarako Etiopia, Argentina eta Palestinan hartu ziren aukera bezala. Azkenean, laikoak izan arren, Palestina aukeratu zuten arrazoi erligiosoengatik, bertan baitzegoen Jerusalem. Hala ere, juduen gehiengoa ez zegoen estatu judutar baten eraiketaren alde. Gehiengoa **asimilazionismoaren** alde zegoen, hau da, zeuden herrietan integrazioa bultzatzen zuten. Beraz, zentzu honetan, sionismoa eta asimilazionismoa aurkakoak dira.

Sionismoak helburuak lortzeko tresna desberdinak erabili zituen: Palestinarantzeko inmigrazioa bultzatzea, nazioarte mailan erakunde sionistak zabaltzea, harrotasun nazionala bultzatzea eta Estatu judutarra eraikitzeko ahalegin diplomatikoak bultzatzea. Horrela, 70 urteetan juduek Palestinan zuten presentzia izugarri handitu zen, 1880an 24.000 judu izatetik 630.000 izatera igaro baitziren 1947an. Masa immigrazio hauek gehien bat antisemitismoaren eta arazo ekonomikoen ondorioz eman ziren.

Britaniar agintarien garaian (1922-1948)

Garai hartan, judutarrek era autonomoan gobernatu zuten, hau da, proto-estatu bat sortu zuten. 1936an, berriz, Palestinako arabiarren matxinada handia hasi zen eta 1939. urtera arte iraun zuen. Borroka armatua erabili zuten arabiarrek egitasmo sionisten kontra, baina britainiarrek mendean hartu zuten mugimendua. Era berean, talde sionistek erakunde armatuak sortu zituzten. Batetik, Irgun eta Lehi muturreko erakundeek atentatuak egin zituzten, arabiarren zein britainiarren aurka. Bestetik, Hagana sionismo ofizialaren segurtasuneko erakundea zen.

Nazio Batuen Erakundearen 1947ko ebazpena

II Mundu Gerran gertatutako Holokaustoak sinpatia-bolada eragin zuen, argumentu sinonistatik nagusia juduek edozein estaturen eraso kontrako babes behar zutela zelako. 1947an Nazio Batuen Erakundeak amore eman zuen sionisten presioen aurrean, eta Palestinako lurraldea banatu zuen. Lurraldearen %57a (608.000 biztanle) juduei eman zien eta %43a (1.350.000 biztanle) populazio arabiarri. Horrela, Jerusalem Nazioarteko agindupean geratu zen, eta Palestinaren banaketari zilegitasuna eman zitzaion.

Israelen sorrera (1948)

1948an Nazio Kontseilu Judutarrek Israel Estatua aldarrikatu zuen, eta erantzun moduan lehenengo gerra israeldar-arabiarra gertatu zen. Egoera honen aurrean koalizio arabiarra antolatu zen, Irak, Libano, Arabia saudi, Egipto eta Jordania batzen zituena. Hasieran juduak baino askoz indartsuagoak zirela ematen bazuen ere, egoera aldatu egin zen, eta Judutarrek irabazi zuten.

Judutarren nagusitasunaren aurrean *nakba* (desastre) kontzeptua jaio zen, identitate nazional palestinarren funtsezko elementua izan zena. Izan ere, egoera honetan sortu zen nazionalismo palestinarra. 1952an lehenengo Palestinaren aldeko mugimenduak hasi ziren, eta 1964an PAE sortu zuten.

Israel Estatuaren eraketa 1948tik aurrera; Independentziako Gudaren ondorioak

Judutarren garaipenarekin, Israelen nagusitasuna nabarmendu egin zen. Garaipenaren ondorioz, Israelek bere lurraldea asko handitzea lortu zuen, 14.000 km²-tik 20.700 km²-ra, alegia. Aldi berean, lurraren banaketari ekin zioten. Gaza Egiptoren administraziopean gelditu zen, Zisjordania Jordaniaren esku eta Jerusalem banatu zuten, ekialdea jordaniaren esku utzi zen eta mendebaldea Israelen esku. Egoera honen aurrean, indarrez kanporatuta edo beldurrez alde eginda, 750.000 palestinar inguruk ihes egin zuten Israeleteik. Izan ere, Ilan Pappé historialari israeldarrak dioenez, Israeleko estatuak garbiketa etnikoari ekin zion, bere lurraldean bizi ziren arabiarrek kanporatzeko.

Errefuxiatu palestiniarren arazoa

Esan bezala, milaka palestinarrek alde egin zuten Israelen nagusitasunaren aurrean. 1948an NBEk 194. ebazpena onetsi zuen, non palestinar horiek itzultzeko eskubidea zutela aitortzen zen. Hala ere, errefuxiatuak eta haien itzultzeko eskubidea da gaur egun ere palestinarren eta israeldarren arteko eztabaidagai nagusietakoa. Izan ere, oraindik ere, milioika palestinar errefuxiatu bizi dira Gazan, Zisjordanian eta auzoko estatu arabiarretako errefuxiatuen zelaietan, oso bizi-baldintza penagarrietan eta hiritartasunik gabe.

Espantsionismo israeldarra

1948an, lehenengo gerra arabiar-israeldarraren ondoren, Israelek estatu egitura finkatu zuen, eta agerian utzi zen arabiarren ahultasuna bai ekonomia mailan zein arlo militarrean. Hala ere, lehen esan bezala honek panarabismoaren eta nazionalismo palestinarren garapena bultzatu zuen.

1956an, Israelek erabateko eraso jo zuen Egiptoren aurka, egun gutxiren buruan Sinai penintsula osoa eta Suezeko kanalaren ekialdeko ertza hartu baitzuten. NBEko tropen eskuartzeak eman zion amaiera gatazkari eta hasierako mugak ezarri zituen. Hala ere, 1967an beste eraso bat gauzatu zen **6 eguneko gerrarekin**. Israelek Siria, Egipto eta Jordaniaren kontra egin zuen lurralde palestinarrek inbaditzeko. Gaza, Zisjordania eta Jerusalem ekialdea anexionatu zuten, eta Siriako Sinaiko penintsula eta Golango Gainak hartu zituzten. Ondorioz, Gaza eta Zisjordania militarki okupaturiko lurralde bihurtu ziren eta harreman koloniala ezarri zen. Izan ere, Estatu Israeldarrentzat ekonomiarako merkatua eta lan indar merkearen iturria izango ziren.

Nazio Batuen 242.ebazpena (1967)

1967ko sei eguneko gerraren aurrean, Nazio Batuen Erakundeak 242.ebazpena onestu zuen. Bertan, okupazioa eta lurralde anexoak legez kanpokoak zirela ebazten zen, eta ondorioz, Israelek lurralde okupatuetatik atzera egin behar zuela agindu zen. Hala ere, Israelek ez du agindua bete, eta azkenengo berrogei eta bost urteetan juduen kokaleku ugari sortu ditu lurralde okupatuetan.

Yom Kippuren gerra eta Camp Davideko akordioak

1973ko urrian laugarren arabiar-israeldar gerra edo Yom Kippuren gerra piztu zen, koalizio arabiar batek israeldar lurraldea eraso zuenean. Beste gerretan ez bezala, eraso honekin hebraitarrek porrot militarrek jasan zituzten lehen aldiz. NBEren bitartekaritzak amaiera eman zion gatazkari eta irtenbide bat bilatu zen Camp Davideko Akordioen bitartez. Akordio honen ondorioz, Egiptok Sinai berreskuratu zuen Israel onartzearen truke. Siriak, berriz, uko egin zion Israel onartzeari, eta ondorioz, Golango Gainek okupatuak jarraitu zuten. Palestina akordiotik kanpo geratu zen.

Palestina Askatzeko Erakundea (PAE), 1964an

Gatazkaren bilakaerak agerian utzi zuen palestinarrek erakunde bat behar zutela haien interesen alde egiteko, arabiar estatuen interesen mendean egon gabe. Horrela, 1964an Palestina Askatzeko Erakundea (PAE) sortu zen, Arabiar Ligak bultzatuta. 1967an, 6 Eguneko gerraren porrotaren ondoren, Yasir Arafat-ek hartu zuen bere gain erakundearen buruzagitza. Erakundeak ez zituen onartzen Israeleko Estatu ezta Palestinaren banaketa ere ez. Honen aurrean, Estatu Palestinar independentea sortzea proposatzen zuten, eta sionismoaren kontrako borroka armatua erabili zuten. Horrela, miliziak antolatzen zituen Israelen inguruko errefuxiatuen zelaietan. Gainera, mundu mailan ere atentatu ugari egin zituen, iritzi publikoari palestinarren auzia ezagutarazteko eta gogorarazteko. Hala ere, ekintza diplomatikoa ere landu zuen Arafatek, eta 1974an Nazio Batuek PAE hartu zuten palestinarren ordezkari gisa.

1970era arte PAEren egoitza nagusia Jordanian kokatuta zegoen. Izan ere, hantxe sortu zituen egitura politikoa, militarra eta agintaritzarako erakunde autonomoak. Hala ere, Jordaniako Hussein erregeak, bere boterea ere arriskuan egon zitekeela ikusita, 1970eko irailean PAEren kontrako erasoak agindu zuen, eta milaka hildako egon ziren (Irail Beltza).

Jordaniatik kanporatuta, PAEk Libanora jo zuen, eta izan ere PAEren presentzia honek kalte egin zion Libanoko oreka politiko-erlijioso ahulari. Horren ondorioa izan zen 1975ean hasitako gerra zibila. Milizia palestinarrek hegoaldeko Libanotik Israel erasotzen zuten. Egoera honen aurrean, 1982an Israelek Libano inbaditzea erabaki zuen eta PAE Libanotik kanporatzea lortu zuen. Orduan gertatu zen Sabra eta Shatilako palestinar errefuxiatuen zelaietako sarraskia. Bertan, Israeleko armadak babesturiko Libanoko milizia kristauak milaka zibil palestinar hil zituen.

***Intifada*, palestinarren erresistentzia mota berri bat (1987-1993)**

1987rako palestinarren erresistentzia mota berri bat sortu zen, *intifada*, non lurralde okupatuetakoko biztanle zibilak matxinaden protagonistak ziren. Egoera honen aurrean eta munduko iritzi publikoaren begi-bistan, armada israeldarrak Zisjordia eta Gazako armarik gabeko populazioaren kontra egin zuen, 4.700 hildako inguru utziz. Hala ere, saiakera hauek ezin izan zuten matxinadak indargabetu. Azken finean, intifadak auzi palestinarren ezaugarriak aldatu zituen eta negoziazio bideari ekiteko faktoreetako bat izan zen.

HAMAS, Erresistentzia Islamikoaren Mugimendua (1987)

1987an, erresistentzia islamikoaren mugimendua (HAMAS) sortu zen, Estatu palestinar islamiarra eraikitzeko asmoarekin eta pentsamolde nazionalista eta erlijiosoa uztartuz. Hasiera batean, HAMASen sorrerak PAE ahuldu zezakeela uste zuen Israelek eta horregatik ez zuen legez kanpo utzi 1989ra arte.

HAMASEk borroka armatua eta ekintza sozialak uztartu ditu. Gizarteko behartsuenen mesedetan aritzeak bere hedapena ahalbideratu du, eta bereziki Gazako gizartearen atxikimendu handia lortu du. Mugimendu honek ez du Israeleko estatua onartzen eta, beraz, negoziazio bidea ere ez. Hori dela eta, Osloko akordioen ondoren ere Israeldarren kontrako erasoak egiten jarraitu du. Testuinguru horretan, palestinarren erresistentzia erabat zatitu da HAMASen eta PAEren artean.

Bake-prozesuaren bidea, 1990tik aurrera

Israeli dagokionez, Intifadak agerian utzi zuen Israelek ezingo zuela Zisjordaniako eta Gazako okupazio militarra luzatu gatazka larririk gabe. Beraz, Israeleko estatuari, konponbideren bat aurkitzea komeni zitzaion eta negoziazioaren bidez bakarrik lor zitekeen hori.

Palestinari dagokionez, PAEren ahulezia nabaria zen. Alde batetik, urte askotako borroka armatuaren ondoren, ezer gutxi lortu zuen. Gainera Jordaniatik eta Libanotik kanporatua, Tunisian kokatu zuen egoitza, baina Palestinatik urrun zegoenez, gero eta ahulagoa zen bere eragin politiko eta militarra. Bestalde, Gerra Hotzaren bukaerak elkarriketaren bidean ere asko lagundu zuen, Palestinar erresistentziaren aliatu nagusietakoa, SESB, bake-prozesu baten alde azaldu zelako. Egoera horretan, pragmatismoa eta negoziazioa nagusitu ziren PAEren zuzendaritzaren estrategian.

Osloko Adierazpena (1993 eta 1995)

Bake-prozesuaren lehenengo urratsa palestinarrek eta israeldarrek elkar onartzea izan zen. Aldi berean, 1993ko Osloko Adierazpenarekin, aldi baterako autonomia palestinarra ezarri zen, Palestinar Aginte Nazionala (PAN). Palestinar Aginte Nazionalak eta Israelek gai korapilatsuenak negoziatzeko hitza eman zuten, besteak beste, errefuxiatu palestinarren itzultzeko eskubidea, juduen koloniak lurralde okupatuetan, Jerusalemeko etorkizuna eta Palestinaren izaera politikoa eta haren mugak.

1995ean, Oslo II izeneko akordioa gauzatu zen, lurralde banaketa zehazteko. Akordio honen ondorioz, Palestinar Aginte Nazionalak Zisjordaniako hiri nagusiak administratuko zituen (A). Biztalaria palestinarra zuten nekazaritzako landetan, berriz, PANek izango zuen aginte zibila eta Israelek kontrol militarra (B). Gainerako Zisjordaniako lurraldea Israelen kontrolpean gelditzen zen (C). Beraz, Israel palestinarren kontrola uzteko prest zegoen, baina lurralde gehiena erabat kontrolatzen jarraitzen zuen, %60a inguru 1999an.

Hala ere, Osloko akordioek porrot egin zuten. Palestinarren aldetik, HAMASek ez zituen akordioak onartu, ezta Israel ere ez, eta erasoak egiten jarraitu zuen. Aldi berean, Israeleko muturreko sektoreek ere ez zuten bake-prozesua ontzat eman, eta honen erakusle da 1995eko azaroaren 4an judu ultraortodoxo batek Isaac Rabin lehen ministro laborista erailteza, Osloko akordioa sinatu izanagatik. Honek eskuineko alderdien indartzea ekarri zuten, eta 1996an Benjamin Netanyahu, *Likud* alderdi ultraeskuindarreko buruzagia izendatu zuten gobernuburu. Lehen Ministroak etengabe oztopatu zuen bake-prozesua, eta Zisjordanian eta ekialdeko Jerusalemen juduen kokalekuak ugaritzen jarraitu zuen.

II.Intifada (2000)

2000ko irailean, Ariel Sharonek, *Likud* alderdiaren buruzagiak, ekialdeko Jerusalemeko musulmanen toki santuetara (Mezkiten Zabalgunera) joan zen poliziaz babesturik. Palestinarrentzat probokazio bat izan zen, eta ostiraleko otoitz egunean, ehundaka musulmanek harriak bota zizkieten Doluen Horman zeuden juduei. Egoera honetan Israeldar polizia tiroka hasi zen eta zazpi palestinar hil zituen. Gertakari hauek hartzen dira II.Intifadaren hasieratzat.

2001eko hauteskundeetan *Likud* alderdia atera zen garaile, eta Sharon izendatu zuten Lehen Ministro. Geroztik bake-prozesua etenda dago, eta indarkeria eta errepresioa izugarri hazi dira. Palestinarrek bonba suizidak erabiltzen hasi ziren Israeldar hirietan, eta Israeldar Estatuak palestinar buruzagiei zuzendutako erahilketa extrajudizialak gauzatu ditu. Gainera, 2002an Estatu israeldarra eta lurralde palestinarra banatzen duen harresi bat eraiki zuen Israelek, tentsioa izugarri areagotuz.

Palestinarr Aginte Nazionalaren hauteskundeak (2006)

2006an Palestinar Aginte Nazionalean (PAN) hauteskundeak deitu ziren. Bertan, HAMAS nagusitu zen, baina Israelek, Estatu Batuek eta Europar Batasunak ez zuten HAMASen gobernu onartu, eta talde terrorista zela argudiatuz blokeo ekonomikoa ezarri zuten. Aldi berean, Al Fatahen eta HAMASen arteko desberdintasunak handitu ziren, haien arteko liskarrak ugartu ziren eta azkenik erabateko haustura gertatu zen. Ondorioz, talde bakoitzak Palestinako lurralde zati txiki bat dute kontrolpean: Al Fatahek Zisjordania eta HAMASEk Gaza.

Gaur egungo egoera

Gaur egun gatazka *stand by* edo geldialdi egoera batean dagoela esan dezakegu. Israelek ez du bakearen *prezioa* ordaindu nahi izan, eta lurralde okupatuetan kontrol militarrik ezarri eta lurralde kolonizatzen jarraitu du gaur arte. Gainera, Israelek ez du benetako estatu palestinarra onartu. Aldi berean, Palestinari dagokionez, 2011an UNESCOk Palestinar Aginte Nazionala kideztat onartu zuen. 2012an NBEaren Asanblada Orokorrak 67/19 Ebazpena hartu zuen, eta Palestina estatu ez-kide begirale bezala onartu zuen. Izan ere, eskubide beteko kidea izateko Segurtasun Kontseiluaren onarpena beharrezkoa da eta Estatu Batuak kontra daude. Aldi berean, 1967ko gerra aurreko mugak onartu ditu Palestiniar Estatua sortzeko muga bezala. Bestalde, 2015ean Nazioarteko Korte penalean Palestinako Aginte Nazionala kideztat hartu zuten.